




Urtekarria 2019





Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta
bertako produktuen
kontsumoa sustatzen
dugu



Hemengoa
izatea ona da



www.eroski.es

Irakurgai duzun urtekarian, 2019an ANBOTOOn landu ditugun gai nagusiak jaso ditugu. Lau urterik behin egiten diren udal hauteskundeen gaiak bete ditu orririk gehien 2019an. Tokiko kazetariok udal hauteskundeetako kanpaina geroago eta lehenago hasten den sentsazioa izan dugu. Emaitzek sorpresak ekarri zituzten. Udal askotan gobernu aldaketa izan da, eta ANBOTO izan zen albiste horien berri eman zuen lehenengo hedabidea. Herri txiki-tako emaitzak izaten dira ezagutzen lehenengoak. Garain ezagutu genuen lehenengo aldaketa. EAJk Herriko Taldeari irabazi zion. Horren ondoren, beste herrietako emaitzak jaso genituen. Bereziki deigarria izan zen Durangon gertatutako aldaketa. EH Bildu eta Herriaren Eskubidea gobernura heldu ziren koalizioan. Hauteskunde gauean hantxe izan zen ANBOTO, emaitzak ospatzeko alderdi biak Goienkalen elkartu zireneko momentua ezagutzera ematen.

Gertuko kazetaritza lantzeak horixe dakar: tokiko informazioa tokiko ikuspuntutik lantzea. Beste hedabide batek landuko ez duen eta eskualdeko edozeinentzat garrantzitsua izango den berri hori lantzeko bokazioa dugu. Euskaraz eta betaurreko moreak kendu barik. 2019an, urteko egun guztietan gure onena ematen ahalegindu gara, eta aurrerantzean ere bide horretan aurrera egiteko gogotsu gaude. Baina hau ez litzateke posible izango zu barik, irakurle. Mila esker zure babesagatik. Biba zuek! 2020a albiste onez betetako urtea izatea opa dizugu!

Urte berri on!
Jone Guenetxea

anboto 

946 816 558 · anboto@anboto.org

AURKIBIDEA

4 URTARRILA

8 OTSAILA

12 MARTXOA

16 APIRILA

20 MAIATZA

24 EKAINA

28 UZTAILA

32 ABUZTUA

34 IRAILA

38 URRIA

42 AZAROA

45 ABENDUA

Anbotoren lagunak Lekuan lekuko lagunak

lagunak@anboto.org · Tel.: 946 816 558

Anboto lagun zarena
babesle hurrekoena
jaso ezazu guztion partez
gure esker beroena

Gure parte sentitzeko
proiektua babesteko
anboto lagun bihurtu
zaitez euskara
munduratzeko

 Anboto
komunikabideak

 @anboto

 @anbotokomunikabideak



Bidean, bizitza berri bati ekiteko esperantzaz

Erreportajea - BERRIZ

> **MIGRAZIOA.** Afrika zeharkatu eta ihesean Berrizera heldu diren lau emakumeren testitazantza bildu zuen ANBOTOk. Euren eskubi-deak errespetatuko zituzten toki batean bizitza berri bat hasteko esperantzaz utzi zuten sorterrria, baina bidean aurkiturikoak ez du antz handirik amestutakoagaz. Batzuk joan eta beste batzuk etorri, Fatimaren, Djenabouren, Angeren eta Zinieren Berrizko egonaldian Olakuetako aterpetxea izan zuten babesleku.


Aterpetxeak 2018ko irailean zabaldu zituen ateak. Hogei lagunentzako lekua du zentroak, eta beharrianak horrela eskatuta, asiloa eskatu duten emakumeen eta gaixoen bizileku bilakatu da.



Eguraldiaren gaintetik, "kalitatezko sagardoa"

Herririk herri - ZORNOTZA

> **SAGARDOA.** Bizkaiko sagardogileek 108.000 litro sagardoekoiztu dituzte 2019an, iaz baino 92.000 litro gutxiago. Zornotzako Uxarte sagardotegian eginiko aurkezpenean, baina, zukuak duen "kalitate ona" azpimarratu zuen Aitor Intxaurre Bizkaiko Sagardogile Elkartearen lehendakariak: "Negua lehorra izan zen eta sagar gehiago izango genuela uste genuen arren, ez da horrela izan". Onintza Enbeita Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapeldunak egin zuen denboraldiko lehenengo txotxa.



JAEDeko autoa Vanesa Fernandezentzat

Herririk herri - DURANGO

> **ELKARTASUNA.** Vanesa Fernandez iurretarrak irabazi zuen JAEDen zozketa solidarioako autoa. Pozarren agertu zen Zinebi jaialdiko zuzendaria saria irabazita. "Urtero parte hartzen dut zozketan, Durangaldeko herritarrik gehienek lez". 60.000 txartel inguru erosi, milaka herritarrek lagundu diote JAEDen ekinbide solidarioari. JAEDek 400 bat familiari ematen die laguntza urtean zehar, jatekoa emanez eta beste-lako beharrianetan lagunduz.

Skatean aritzeko eremua egingo dute

Herririk herri - MALLABIA

> **AISIALDIA.** 2019ko aurrekontuak onartuta, Mallabiko Udalak 50.000 euro gordetzea onartu zuen skate eremu bat egiteko. Azpiegiturak obalo itxura izango du. Igor Agirre alkatearen berbetan, hainbat herritarrek sinadurak bildu zituzten eskaera hau egiteko. Umeentzako parkearen azpialdean dagoen konpost gunea kendu eta hantxe ipiniko dute skate eremua.





Zornotza Aretoak 25 urte egin ditu

Erreportajea - ZORNOTZA

> URTEURRENA. Zornotza Aretoak mende laurdeneko ibilbidea bete du 2019an. Urteurren berezia ospatu dute kulturgunean. Bertako sortzai-

leen taula ez ezik, aterpea ere izaten jarraitzeko asmoagaz jarraitzen du aretoak. Besteak beste, Markeliñe eta Anita Maravillas antzerki taldeek eta Lara Izagirre artistak bertan hasi ahal izan dituzte sorkuntza prozesuak. Alor eta diziplina askotariko langile edo artisten topagune ere izan da 25 urte hauetan.

Murala Elorrion, bonbardaketa oroitzeko

Herririk herri - ELORRIO

> OROIMEN HISTORIKOA. Laumunarieta 1937 elkarrean gerra zibilean Elorriok jasandako bonbardaketa oroitzen duen murala aurkeztu

zuen. *Eurena da memoriaren eskubidea eta gogoratzea gure bete beharra* du izena muralak, eta Joana Mancisidor artistak egin du. Muralean, bonbardaketa unean italiar tropa faxistek airetik hartutako irudi bat agertzen da. Herriko memoria historikoa aztertzea eta transmititzea du helburu Laumunarietak.



Gontzal Murgoitio, Bizkaiko txapeldun juniorretan

Kirola - ELORRIO

> KROSA. Durangaldeko hainbat korrikalari Bizkaiko txapeldun geratu ziren Berrizko krolean. Durango Kirol

Taldeko Gontzal Murgoitio elorriarra izan zen horietariko bat. Junior mailako txapela jantzi zuen, kros bikaina osatuta. "Elgoibarko krolean Euskal Herriko bigarren geratu nintzen. Lehenengoa hernaniarra zen, eta, beraz, banekien lehenengoan artean ibiltzeko aukera nuela", esan zuen.

amorebieta
etxano
UDALA
www.amorebieta-etxano.eus





Berton Bertokoak ez du begi onez ikusi gurasoek jantokiak gestionatzeko aukera

Herririk herri - DURANGALDEA

> ELIKADURA. Gernikan eta Markinan garatutako esperientzia pilotuen eredu hartuta, jantoki zerbitzua euren kabuz gestionatzeko aukera eman zieten guraso elkartei 2019/2020 ikasturtean. Gestio zuzen horretan, gurasoak arduratu beharko ziren sukaldeko profesionalak kontratatzeaz,

elikagaiak eskuratzeaz eta segurtasunaz, besteak beste. Baina Berton Bertokoako kideek ez zuten begi onez ikusi proposamena. Durangaldeko ikastetxeetan bertako eta sasoiko produktuak kozinatzearen alde lan egiten duen dinamikako kideen ustetan, Eusko Jaurlaritzak "eskuak garbitu" gura

izan zituen proposamenagaz. "Eskola jantokiaren kudeaketaren ardura eta kudeaketa bera ezin dira guraso elkarrekin bizkarrean utzi", kexatu ziren. Guraso elkartearen osaketa aldakorak, gainera, egonkortasuna zalantzan ipiniko lukeela uste zuten. Arau aldaketa lantzeko, Berton Bertokoak Gasteizko

batzordean parte hartu zuen, eta "lege proposamen serio bat" eztabaidatzeko deia egin zion Jaurlaritzari.

Urrian heldu zen legebiltzarren erabakia. Legebiltzarren aho batez onartu zuen eskolako jangelen kudeaketa eguneratzea. Eusko Jaurlaritzak lau hilabeteko epea zuen jantokiaren kudeaketa araudia eguneratzeko. Bestalde, Hezkuntza Sailaren 2019-2023 Azpiegitura Planak sukalde baina ipintzea jasotzen du Durangaldeko lau ikastetxeetan: Zaldibarko eta Atxondoko ikastetxeetan, Iurretako Juan Orobiogoitian eta Durangoko Zabalarran.



The Wilsons taldea, AEBetan zehar

Kultura - DURANGALDEA

> MUSIKA. 2014an New Yorken (AEB) sortu eta gero, lau urte geroago *Rage&Love Songs* diskoa kaleratu eta sorlekuan bertan kontzertu sorta eskaintzeko aukera izan zuen The Wilsons taldeak. Aitor Mendilibarrek, Gorka Bidaurrezagak, Ibai Arrizabalagak, Iñaki Ugarteburuk eta Andoni Ormaetxeak osatzen dute taldea.

Asier Eguna ospatu dute Iurretan

Akuilua - IURRETA

> KURIOSITATEA. Urtarrilaren 5ean hamaika lagun elkartu ziren Iurretan Asier Eguna ospatzeko; gazteenak 24 urte zituen, eta zaharrenak 46. Eguna antolatzeko, 21 lagunek WhatsApp taldea sortu zuten. 2018ko San Migel egunean hasi zen dena. Sorreragaz

zerikusuz zuzena eduki zuten Asier Otaduiagaz eta Asier Veragaz batu zen ANBOTO. 'Asier eta kitto!' txapak soinean, Iurreta pegatinekin josi zuten, eta, gero, batzuk Durangora abiatu ziren. "Parranda egiteko aitzakia izan da Asier Eguna", esan zuten Otadui eta Verak. Bigarrenez egiteari buruz galdetuta, baiezkoa eman zuten protagonistek: "Badugu esperantza! Jendea animatuta dago. Etortzerik izan ez zuten batzuk ere gogotsu daude".



Eunate Oregi kantxetara itzuli da

Kirola - DURANGO

> ESKUBALOIA. Belauneko lesio baten ondorioz urtebete baino gehiagoan kantxetatik kanpora egon eta gero, Eunate Oregi durangarra kirolaren alde gozoa dastatzera heldu da berriro. Aurtengo denboraldia eskubaloiko Zilarrezko Ligan jokatu du, Etxebarriko Kukullaga taldean. Eusko kadiko selekzioan ere parte hartu du.





'Continuum Fracture' Orion Child-en diskoa

Kultura - DURANGO

> **MUSIKA.** 2006an sortu zenetik, Orion Child seikote durangarrak muturreko musika jorratu du: power metalaren ildotik hasieran, death metal melodikotik hurbilago gaur egun. Crowdfunding bitartez finantzatuta, euren hirugarren lan luzea den 'Continuum Fracture' kaleratu dute 2019 honetan.



Gaueko aterpearen balorazio positiboa

Herririk herri - DURANGALDEA

> **ATERPEA.** Etxerik ez dutenentzako gaueko aterpeari buruzko balorazio positiboa egin du Amankomunazgoak. Lo egiteko aukeraz gainera, afaria eta dutxa eskaintzen dizkiete. 2018tik hona, urte osoko zerbitzua eskaini du, hainbat instituzioren elkarlanari eskerrak. Ne-guan hamar pertsonarentzat egoten da lekua, eta urtean zehar beste bostentzat.



Ohorezko mailan, Gernika errugbi taldeagaz

Kirola - ABADIÑO

> **ERRUGBIA.** Gaizka Iturriagaetxebarria abadiñarrak egundoko urtea eduki du. Lehenengo urtea izan du Ohorezko Mailan, eta Gernika Rugby taldeagaz jokatu du. Denboraldia estu eta larri igaro ondoren, talde bizkaitarrak maila galdu zuen azkenean. Hala ere, jokalaria pozik agertu da, asko jokatzeak aukera izan du eta. "Hiru partidua kenduta, gainerako denak osorik jokatu ditut Gernikan", azaldu zuen.

Protestak Kristau Eskolako ikastetxeetan

Herririk herri - DURANGALDEA

> **LAN BALDINTZAK.** Kristau Eskolako ikastetxeetako beharginek greba deialdia egin zuten hitzarmen kolektiboaren harira sorturiko gatazkaren aurrean, urtarriletik aurrera. Durangaldeko Kristau Eskolako ikastetxeetan 3.000 ikasle eta 300 irakasle daude guztira. Urte osoan hainbat greba egin eta gero, azaroan patronalagaz akordioa lotu zuten.



Dabid Garcia Bizkaiko Kross txapelketan berriz

Kirola - DURANGO

> **KROSA.** Hankako lesio bategatik azken urte bietan berea eman ezinik ibili ondoren, Dabid Garcia durangarra berriro lehiara bueltatu zen Bizkaiko kros txapelketan. Aurretik, Elgoibarko kros prestigiotsuan 26. amaitu zuen. "Emaitza oso ona da. Korrikalari askok eta munduko onenetarikoek parte hartzen dute han. Euskaldunen artean, Iban Fernandez baino ez zen sartu nire aurretik. Gertu izan nuen, gainera, 13 segundotara", esan zuen.

ALKIMAX


BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



Elorriko trenbidea zena eraberritu dute

Herrikerri - ELORRIO

> NATURA. Elorriko trenbidea zaharra eraberritu, eta udalak bidegorria egin du bere eskumenekoa den zatian. 1975ean irten zen azkenengo tren Elorriko geltokitik, eta orduetik abandonatuta egon da. Lan hauei eskerrak, Elorriko autokarabana gunetik irten eta Arrazolaraino oinez joateko aukera dute naturazale eta kirolzaleek.



Sarrionandia katalanez 'Es morta la poesia?'-n

Kultura - IURRETA

> POESIA. Joseba Sarrionandia idazle iurretarraren *Hilda dago poesia?* poemen antologia euskaraz eta katalanez kaleratu zuten Pamiela eta Pol-len argitaletxeek. Ainara Munt Ojangurenek itzuli zuen. Iurretan eginiko aurkezpenean Ojanguren ere egon zen. Liburua crowdfunding bitartez finantzatu zen, 4.500 euro batu eta gero.

Sinadura bilketa abiatu dute, Berrizko belodromoa estaltzea eskatzeko

Erreportajea - DURANGALDEA

> TXIRRINDULARITZA. Eustrak taldeko Ana Usabiaga, Irene Usabiaga, Illart Zuazubiskar eta Ziortza Isasi goi mailan dabiltzan pistako txirrindulariak dira eta munduko onenekin lehiatzen dira. Markel Rodriguez Duranguesa taldean dabilen promesa gaztea da.

ANBOTOk Berrizko belodromoan batuzituen bostak, baina ez entrenatzeko, sarritan zergatik ezin diren entrenatu kontatzeko baino. Bizkaiko Federazioak mahai gainean ipini du euren egoera, eta sinadura bilketa abiatu du belodromoa estaltzeko eskatuz. Izan ere, zorua busti edo umel dagoenean,

txirrindulariak ezin dira pistara irten, arriskutsu dagoelako. Eta neguan askotan gertatzen den kasua da.

Illart Zuazubiskarrek otsailean egindako elkarrizketan azaldu zuenez, "neguan, egunen %90ean belodromoa bustita egoten da. Zeozer entrenatu daiteke, baina ez munduko kopako hitzordu batek eskatzen duen adina". Donostiako belodromora joatea beste aukerarik ez dute izaten. Errepidean ere entrenamendu batzuk egin behar izaten dituzte. Azpiegitura estali batek mota askotako onurak ekarri zitzaizkela azaldu zuten txirrindulariek: "Ez pistan gabiltzan ziklistentzat bakarrik. Esaterako, zikloturistentzat ere bai".

zatoz gu ezagutzera

94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org

www.informazaitetz.eus

jhu

jesuitak

Durango



Durangar bi Ameriketara zehar furgonetan

Akuilua - DURANGO

> **BIDAIAK.** Haira Urquijok eta Daniel Cuevasek urtebete sabatikoa egingo dute Ameriketako Estatu Batuak furgonetan zeharkatzeko. Los Angelesen lur hartu, eta, besteak beste, Yosemite, Sequoia eta Joshua Tree parke nazionalak bisitatu dituzte, eta Heriotzaren Harana (Death Valley) eta Mojabe desertuak ere igaro dituzte. "AEBetan parke natural bakoitzak bere klima du, bere paisaia. Herrialde desberdinak ikustea lakoa da. Yosemite kostaldetik 500 miliara dago, eta hegoekialdera 200 milia eginda desertua dago. Batean 30 gradu izan ditugu, eta bestean 25 zero azpitik", azaldu zuen Daniel Cuevasek. Mexikarren eskuzabaltasuna nabarmendu gura zuen Haira Urquijok: "Mexikoko herri kolonialak deigarri egin zaizkit, besteak beste, eta mexikarren eskuzabaltasuna ere aipatu gura nuke". Kalifornia Beheretik Mexikora sartu ziren gero. Hortik Kanadara jo zuten, furgoneta saldu eta bizikletekin Alaskara helzteko asmoz.



Gaixo ikusezinentzat leiho bat zabaldu guran

Erreportajea - DURANGO

> **JENDARTEA.** Eva Maria Hazas durangarraren ingurukoek SFC-SQM Euskadi Aesec elkartearen sortu zuten Durangon. Hazas oso sentikorra da gai kimikoen eta elektromagnetikoen eraginei, eta ezin du etxetik ere

irten. Hori gutxi ez, eta fibromialgia eta neke kronikoa ere baditu. Gaixotasun horiek dituztenak eta haien senideak orientatzea, diagnostikoetan laguntzea, bizi-kalitatea hobetzeko neurriak adostea eta prebentzioa sustatzea dira euren helburu nagusiak. Besteak beste, Durangoko Udalak instalazioetan garbiketako produktu bereziak erabiltzeko konpromisoa hartu zuen, aho batez.



Kuadrillako hamar gazte debutari, errugbian

Kirola - ELORRIO

> **ERRUGBIA.** Elorrio Rugby Taldeak kuadrilla bereko hamar gazte debutari izan ditu aurten. 2000. urtean jaiotakoak dira, eta 2018/2019 denboraldian debutatu dute nagusiekin. Beñat Eguren, Endika Miguel, Ismal Bou-Ali, Julen Zengotita, Oier Azkarragaurizar, Martxelo Eriz, Niko Lohse, Oier Santos, Manex Basabe eta Aimar Ardanza dira debutariak.



2,3 graduko lurrikara gertatu zen Mañarian

Herririk herri - MAÑARIA

> **LURRIKARA.** Otsailaren 18ko goizaldean, lurrikara txiki batek Mañaria astindu zuen. Txikia izan zen, baina lo zeudenetarikoz batzuk iratzartzeko adinakoa izan zen. Arturo Apraiz zornotzarra Geologia graduko irakaslea da EHUan, eta, bere esanetan, horrelakoak ohikoak dira Euskal Herrian: "Gehienak bitik hiru gradura artekoak izaten dira, eta esporadikoak, bi-hiru urterik behin". Hori azaltzeko, lurrazalaren uniformetasun eza azaldu zuen: "Zelanbait esateko, lurrazala pieza txikitana banatuta dago. Noizean behin, pieza horiek ezegonkortu eta mugitu egiten dira". Horrez gainera, eskualdean ez dugula lurrikara handirik edukiko azaldu zuen.



Zorionak eta urte berri on!

FURESA

FUNDICION NODULAR




Hertzainaken Euskaldunako eta Bilboko Antzokiko kontzertuen haziaren landatzea

Erreportajea - DURANGALDEA

> **MUSIKA.** Hertzainak taldearen 35. urteurrenaren harira, Garik eta Josu Zabalak kontzertu sorta elegantea eskaini zuten irailean Bilboko Euskaldunako eta Kafe Antzokian. Sarre-rak ordu gutxitan amaitu ziren. Garik Maldanbera taldeagaz kaleratu duen *Beste denbora batean* diskoaren aurkezpen kontzertuan landatu zen

hazia, Arriaga antzokian. Bertan, talde gasteiztar mitikoaren abesti ezagunenetariko batzuk jo zituen akustikoan Josu Zabala lagunagaz batera. "Mahai gainean ipini genuen aukera hori, Hertzainak 35. urteurrena ospatuko dugulako. Ez du ezer esan nahi, baina bestetik, badu esanahi berezia. Diskoa grabatzen

nenbilela, efemeride hori heldu zen. Horren harira, saio horren baitan [Arriagakoa] zerbait asmatzea pentsatu genuen", azaldu zion Garik ANBOTOrri, otsailean eginiko elkarrizketan. Aspaldiko partez aritu ziren elkarregaz biak, eta Euskaldunako eta Kafe Antzokiko kontzertuetatik irribarreagaz irten ziren ikusleak.



Atxiloketa bat Zornotzan Ardines kasuagatik

Herririk herri - ZORNOTZA

> **HILKETA.** Francisco Javier Ardines Llaneko (Asturias, Espainia) zinegotziaren hilketaren inguruko polizia operazioan, Guardia Zibilak pertsona bat atxilotu zuen Zornotzan, Zubipunteko etxe batean. Operazio berean, hiru lagun gehiago atxilotu zituzten, horietariko bat Suitzan. Francisco Javier Ardinesek 52 urte zituen, Llaneko Izquierda Unida alderdiko zinegotzia zen eta 2018ko abuztuan hil zuten, Belmonte de Prías inguruan, bizileku zuen herrian. Egindako atxiloketak Guardia Zibilaren ikerketaren ondorio izan ziren. Kasuak oihartzun handia izan zuen Espainian.

'Etxerako giltzak' ikuskizunaren estreinua

Kultura - DURANGO

> **DANTZA.** 40 Minutu Rock jaialdiaren bosgarren urteurrenaren harira, Ane Gabilondo eta Uribarri Atxotegi durangarrek *Etxerako Giltzak* sentikaria estreinatu zuten Landako Gunean. Dantzari profesionalak izan ez arren, gogotsu hartu zuten erronka. "Hartutako erabaki batetik aurrera pertsona baten bizipen guztiak azal-

tzen ditu lanak. Bidaia bat da guztia, euskal preso politiko baten ibilbidea kontatzen duen bidaia", azaldu zuen Gabilondok. "Hainbat artistaren laguntzagaz, sentimenduak mugimendu bihurtu ditugu", gehitu zuen Atxotegik. Mikel Urdangarin, Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal aritu ziren eurekin batera. Gotzon Barandiaranek egin zituen koordinazio lanak. Bestalde, 40 Minutu Rock jaialdian, Brigade Loco, Nogen, Huntza, Zea Mays, Parabellum, Bad Soun, Ezetaerre eta Ira taldeek jo zuten.



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA

CEPA DURANGO HHI Doako irakaskuntza ofiziala



Laubideta kalea, 6 (Durango) · Tel: 946 814 253 / 946 215 902 · www.epadurango.hezkuntza.net



Erreleboen denboraldia izan da Tabirakon

Kirola - DURANGO

> **SASKIBALOIA.** Jesus de Vicente entrenatzaileak eta Marina Maurtuak taldeari agur esan eta gero, mirarien denboraldia izan da Tabirakon. Izan ere, Mirari Aldekoa iurretarrak eta jokalaririk gazteek gogotsu hartu dute aginte makila.

Ludoteka berria Axpeko udaletxe zaharrean

Herririk herri - ATXONDO

> **INAUGURAZIOA.** Atxondoko Udalak ludoteka zabaldu zuen otsailean, herriko ume eta gaztetxoek Axpen egoteko eta jolasteko gune bat eduki dezaten. Gune berria udaletxe zahararen eraikinean atondu zuten, eta umeek hainbat gauza dituzte bertan jolasteko: koltxonetak, jolasak eta mahaiak, besteak beste. Gainera, erabilera anitza izango duen gunea ez da umeentzat izango bakarrik. Arrazolakoaren estilora, gaztetxoek ere erabiltzeko aukera izango dutela adierazi zuen David Cobos orduko alkateak: "Umeekin jolasteko, gaztetxoak egoteko, ikasleek ikasteko, batzarrak egiteko eta abarretarako erabili ahalko da gunea. Arrazolan dagoen ludotekaren antzerakoa da".



Algen zaporea eta propietateak zabalduz

Akuilua - MAÑARIA

> **ELIKADURA.** Algen propietateak eta zaporea ezagutarazi guran, Amaia del Hierro eta Garazi Sarrionandia ama-alabek Alga Artean enpresa sortu zuten. Kontserbako algez gainera, alga

hautsa, alga deshidratatua, edo gatzetan ipinita saltzen dute. Atlantikoan hartutako algak ekartzen dituzte, Galiziatik, Andaluziatik eta Britainiatik. Horiekin esperimentatzeko, harreman sarea egitea ere badute helburu. Gaztagaz, txokolateagaz, marmeladagaz, garagardoagaz eta beste produktu batzuekin nahastu eta landu gura dituzte algak.

19. postuan bere lehenengo maratoian

Kirola - DURANGO

> **ATLETISMOA.** Oier Ariznabarreta durangarra maratoi distantzian estreinatu zen otsailean, Sevillan. 42 kilometro eta 195 metroko ibilbidea 2.19.02ko denboran osatu zuen, eta 19. tokian amaitu zuen lasterketa. "Itxarondakoa baino emaitza hobea izan da. 2.20ko denbora egitea nuen helburu, baina

urtarrileko prestaketa txarto neramala ikusita, 2.23 edo 2.24ko denbora ipin nion erronka neure buruari. Lasterketan ez nintzen konturatu ere egin zein erritmotan nindoan, eta oso pozik nago egindako denboragaz eta lortutakoagaz", esan zuen. Urtarrilean aita hil zitzaion Ariznabarretari, eta ezbeharrak hasierako prestaketa baldintzatu zion. Mendiko lasterketek maratoietarako oinarria egiten lagundu diotela aitortu du durangarrak. Biei ekiteko asmoa agertu zuen.



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

0 -18 URTE **HAZI eta HEZI** gurekin



Larrea z/g - Amorebieta-Etxano - Tel.: 946 732 950
zornotza@ikastola.eus - www.zornotzaikastola.eus



Emakumeen bizitza eta aldarriak erdigunean ipini dituzte martxoaren 8an

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **MARTXOAK 8.** Urteetan zehar berotzen joan den mugimenduak eztanda egin zuen 2018ko martxoaren 8an, eta eztanda hori biderkatu egin da aurten. Martxoaren 8an milaka emakume irten ziren kalera, mugimendu feministak deituriko grebagaz bat eginda, era masibo, alai eta aldarrikatzailean. Egun horretan, emakumeen bizitza eta alda-

rrikapenak erdigunean ipini zituzten. Eta, horretarako, hainbat jardura antolatu zituzten: mural margoketak, kazeroladak, otordu autogestionatuak, mobilizazioak...

Greba feministak jarraipen handia eduki zuen eskualdean. Durangoko sektore publikoan, adibidez, eragina "erabatekoa" izan zela azaldu zuen ELA sin-

dikatuak. Herriko ikastetxe eta komertzio askok zarratu egin zuten, eta beste denda batzuk ere itxita egon ziren mobilizazioetan parte hartu ahal izateko. Horrez gainera, egun horretan establezimenduetan ez kontsumitzeko deia egin zuten mugimendu feministako kideek. Zaintza izan zen greba egunean indarrik handiena hartu zuen gaia. Fe-

ministek zaintzaren "berrantolaketa soziala" eskatu zuten, "bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa". Eta martxoaren 8an planto eginda, zaintza euren ardurapean uzten dela erakutsi gura izan zuten. "Emakumeok planto egiten badugu, dena gelditzen da", aldarrikatu zuten. Igarri zen eragina. Logika horren harira, gizonek greba babesteko modua zaintzanez arduratzen zela adierazi zuten emakumeek.

Bestalde, bizitza prekarioaren aurka azaldu ziren martxoaren 8an, eta indarkeria matxistarik, heteroarririk, arrazakeriarik eta gerrarik bako bizitza baten alde egin zuten.

'Extraños en el paraíso' Bakedanoren lan berria

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **BILDUMA.** ANBOTOrako idatzitako kolaborazio zaharrak hartu, eta Jose Julian Bakedano zinemagileak *Extraños en el paraíso* bilduma kaleratu zuen. "Orain hamabost urte, Xabier Amurizak ANBOTOGaz kolaboratzeko eskatu zidan. Sei astean behin-edo idazten nituen zutabe horiek, eta 42. zutabera heldu nintzenez, liburutxo baterako moduko materiala nuela ikusi nuen. Orduan, gaztelaniaz idatzi nituen testu originalekin bilduma kaleratu dut", aitortu zuen Bakedanok.



Ruben Gorospek oroigarria jaso du Getxon

▣ **Kirola** - MAÑARIA

> **TXIRRINDULARITZA.** Ruben Gorospek eta Miguel Indurainek Deustuko taldearen urteurrena gogoratzen duen plaka inauguratu zuten, eta oroigarri bana jaso zuten Bilboko alkatearen eskutik.

Egun, Gorospe Cafés Baqué taldean laguntzen dabil. "Sasoi batean, kirol zuzendari jardun nuen, baina, gaur egun, lasterketa batzuetan bakarrik laguntzen dut", adierazi zuen. Bestalde, gaur egun gazteei geroago eta gehiago kostatzen zaiela entrenatzea aitortu zuen.



Udala hidrokarbueroak ikertzearen kontra dago

▣ **Herririk herri** - MAÑARIA

> **GIZARTEA.** Jaurlaritzak hidrokarbueroak ikertzeko baimena eman zion SHE-SA erakunde publikoari. EH Bilduk eta EAJk egitasmoa geratzeko eskatu zuten.

27 tona janari batu dituzte sahararren alde

Herririk herri - BERRIZ

> **JANARI BILKETA.** Beste urte batez, Rio de Oro eta Lajwad elkarteek Sahara-ren aldeko karabana solidarioa antolatu zuten, eskualdeko udalen laguntzagaz. Azken janari bilketan, 14 tona batu zituzten, eta instituzioek emandako diru-laguntzagaz 13 tona erosi zituzten. Guztira, iaz baino 6 tona elikagai gehiago batu dituzte. "Beste behin ere, Durangaldea solidarioa da sahararrekin", esan zuen Mikel del Arco Rio de Oroko kideak.



Elorrion Bulkada Eguna ospatu dute

Herririk herri - DURANGALDEA

> **URTEURRENA.** Ernai eta Aitzina gazte antolakundeek *Bulkada berrien garaia da* dinamika martxan ipini zuten udazkenean, Jarrairen sorreraren 40. urteurrena gogoratu eta hainbat belaunalditako kideen hartu-emanak estutzeko. Jarrairen sorkuntza gogoratzeko, Bulkada Eguna ospatu zuten martxoan, eta ANBOTOk Maite Barreña durangarra eta Pello Zabarte zaldibartarra elkarrizketatu zituen. "Ekinaren helbururik garrantzitsuenak belaunaldi berriak gazte antolakundeari lotzea da", adierazi zuen Zabartek.



Ospitaleko berdegunea herritarrei zabalik

Herririk herri - ZALDIBAR

> **GIZARTEA.** Ospitaleko berdegunea urte bian erabili ezinik egon da, baina martxotik hona zabalik dago herritarrentzat. 3.500 metro koadro ditu.

Eneritz Azpitarte Zaldibarko sasoi hartako alkateak esan zuenez, lanek hainbat atzerapen izan zituzten Osakidetza-jarreraren ondorioz, eta, gainera, aurrekontua handitu behar izan zuten. Guztira, 110.000 euro baino gehiagoko gaitzua eduki zuen.

IURRETAKO UDALA

Tel.: 946 201 200

www.iurreta.eus



Iurreta
Eleizateko Udala



Herritarren
Arreta
Zerbitzua

Bidebarrieta, 5
(48215 - Iurreta)

Bonbardaketaren biktimak oroitu, eta justizia eskatu dute Martxoaren 31n

Herririk herri - DURANGALDEA

> **GIZARTEA.** 1937ko martxoaren 31n faxistek Durango eta Elorrio bonbardatu zituzten. Mola jeneral kolpistaren aginduz, Italiako Aviazione Legionaria-riako militarrek 336 lagun hil zituzten 1937ko martxoaren 31n Durangon, 281 bonba jaurtita eta jendea metrailatuta. Elorrioren 7 lagun hil zituzten, 88 bonba jaurtita.

Urte luzez isildua, Gerediaga eta Durango 1936 elkarten ekimenez eta Elorrioko Laumunarieta elkartearen inizatibagaz berreskuratu da,

nagusiki, bonbardaketaren memoria. Aurten ere, hainbat izan dira bonbardaketaren biktimak oroitzeko ekitaldiak. Durangon, Benita Uribarrrena parkean eginiko ekitaldian, Esteban Cuevas lekukoak egin zuen lore eskaintza. Iluntzean, Andra Marian egindako ekitaldian, Mari Ardanza lekukoa arduratu zen lore eskaintza egiteaz, eta honen biloba Idoia Bedia-gak abestu egin zuen. Ardanzak bederatzirte urtegar bizi izan zuen bonbardaketa. ANBOTOrri azaldu zionez, he-

gazkinen motoreen zarata gogoan du oraindino. "Gu San Faustoko baserri batean bizi ginen. Etxean geunden eta hegazkinen zarata entzuten genuen. Run run run. Burrundara handia ateratzen zuten. Zanga bat enborekin estali, eta hantxe babestu ginen bonbardaketatik", esan zuen Ardanzak.

Elorrioren, udalak eta Laumunarietak antolatu zuten ekitaldia, eta Idoia Buruaga alkateak eskertu egin zuen lankidetzaz hori.



Sentsibilizazio astea antolatu dute Atxondon

Herririk herri - ATXONDO

> **JAIALDIA.** Otsailean, Atxondo Harrera herri bilakatu zen, eta, harrezkerro, beste herrialde batzuetatik exiliatu behar izan diren hainbat lagun batu dira Atxondon. Errefuxiatu horien egoera ezagutu, eurei lagundu eta sostengu ekonomikoa lortzeko asmoz, martxoan sentsibilizazio astea antolatu zuten.



Ikastetxeetan hondakin organikoak birziklatzen

Herririk herri - DURANGO

> **INGURUMENA.** Durangoko Udalak finantzatuta, martxotik hona martxan da herriko zazpi ikastetxeetan hondakin organikoak sailkatzen hasteko esperientzia pilotua. Iñigo Etxebarria nekazariak batuko ditu ikasleek jaten dituzten elikagaien hondarrak.



400 kobazuloko altxorra Durangaldean

Erreportajea - DURANGALDEA

> **NATURA.** 1987tik hona, Abadiñoko GEMA espeleologia taldeak 400 kobazulo eta leize katalogatu ditu Anbotoko mendilerroan. Talde horrek Urkiolako parke naturaleko barrunbeak ikertzeko eta zaintzeko ardura du. Kanpotik begiratuta, imajinatzeko zailak diren tamaina, luzera eta sakonerakoak dira kobazulo horietariko batzuk.

Espeleologoek ikertzen jarraitzen dute eta azken urteetan ere aurkikuntza

garrantzitsuak egin dituzte. Aurkikuntzarik aipagarrien artean, batetik, Anbotoko Mariren koban 185 metroko putzu bat topatu zuten, 2007an. Bestetik, Eskuagatz mendian Deabruatz kobazuloa topatu zuten, 2010ean, eta potentzial espeleologiko handia duela uste dute. 6 kilometro luze da eta 153 metroko desnibela du.

Ikerketaz gainera, GEMA taldeak beste hainbat funtzio betetzen ditu. Erreskateetan laguntzen dute eta kobazuloetan garbiketarako egiten dituzte. Esaterako, 2018ko urrian, Abadiñoko espeleologia taldekoek 400 kilo zabor atera zituzten Eskuagatzeko leize batetik.

DURANGO KABILDUOSTE



Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona eskusiboan**, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren,
proiektu berria Durangon,
KABILDUOSTE

Informa zaitez!

946 462 041

 **sukia**

Zure etxean zaude **Estás en tu casa**

www.sukia.com

Ehunka lagunek egin dute korrika euskararen alde Durangaldean

Herririk herri - DURANGALDEA

> **KORRIKA.** 21. Korrika apirilaren 4an hasi zen, Garesen (Nafarroa), eta apirilaren 14an amaitu zen, Gasteizen, Maialen Lujanbio bertsolariak mezua irakurrita. Durangaldean apirilaren 13an sartu zen, Gasteizera bidean. Jendetza batu zen eskualdean euskararen alde korrika egiteko, euskararen alde *klika!* egiteko.

Korrikaren edizio guztietan lez, aurtengoan ere pertsona bat omendu du AEK-k. Aurten, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* izan da omen-dua. "*Txillardegik* utzitako ondarea literaturan, ikerkuntzan, irakaskuntzan, euskalgintzan, handia da; bere sasoian, klika egin zien euskarari, literaturari, herriari..." gogoratu zuten AEK-koek. Euskara batuaren bultzatzaileetarikoa izan zen, eta eredu bateratu hori sortu zela 50 urte bete di-

renez, Korrikako antolatzaileek une egokia ikusi zuten 2012an hildako euskaltzalea gogoratzeko.

Durangaldean korrika egiteaz gainera, eskualdeko hainbat lagunek Euskal Herriko beste hainbat puntutan kilometroak erosi eta bertan korrika egin zuten. Esaterako, Durangoko eta Iurretako kuadrilla batek Orreagan hartu zuen lekukoa, "euskaldunontzat duen esanguragatik". Eskualdeko kuadrilla horrek elurretan egin zuen korrika, eta "esperientzia zoragarria eta ahaztezina" izan zela aitortu zuten.

Munduan zehar antolatutako Korriketan ere parte hartu zuten eskualdeko beste hainbat kidek. Esaterako, Durangaldeko hainbat gaztek Bartzelonako Korricursan parte hartu zuten, eta hainbat abadiñarrek Irlandan egindako Korrikan.



1.300 sinadura platanu arbolen alde, Abadiñon

Herririk herri - ABADIÑO

> **GIZARTEA.** Abadiñoko Udalak Ferialekuko platanondoak kenduko zituela esan zuen, eta, horren aurrean, herritarrek mobilizatzen hasi ziren. Herritar talde batek sinadura bilketa bat hasi zuen herrian, eta apirilaren 17an 1.300 bat sinadura entregatu zituzten udal-txean. Horrez gainera, ingeniari baten zerbitzua kontratatu zuten txosten tekniko bat izateko. Ingeniariak egindako txostenak "dudak" sortu zizkion orduan alkate zen Jose Luis Navarrori, eta, azkenean, "onik" zeuden platanondoak bertan uztea erabaki zuten.



"Di Stefano exigentea zen, jokalar guztiekin"

Kirola - DURANGO

> **FUTBOLA.** Valentzia futbol klubak mendeurrena ospatu du aurten, eta, ekitaldi berezi batean, klubean ibilitako jokalariek omendu zituzten. Ekitaldi horretan, Juan Luis Melendez durangarra ere omendu zuten.

Atezain ohiak 1971tik 1974ra bitartean jokatu zuen Valentzian. Bertan, Alfredo Di Stefanoren aginduetara izan zen. "Di Stefano exigentea zen, jokalar guztiekin", azaldu zion Melendezek ANBOTOrri.

27 produktore Garaiko Landara azokan

Herririk herri - GARAI

> **AZOKA.** Zazpigarren urtez, Landara eta Lorazaintza Azoka antolatu zuten Garain. Apirilean egiten duten azokak arrakasta handia du Durangaldeko herritarren artean. Garaira joan zirenek loreak eta lorezaintzako tresnak erosteko aukera izan zuten. Gainera, Durangaldeko hiru baserritarren jakiak dastatu eta erosteko aukera ere izan zuten. Baita egurra lantzen duen eskualdeko artisauren lanak ikusteko aukera ere.



Durango Pasioak 120 bat antzezle batu ditu

Kultura - DURANGO

> **PASIOA.** Aurten, Durango Pasioen 26. edizioa izan da. Juan de Iciar kultur elkarteko kideek antolatzen duten ekimenak nobedade nagusi bi izan ditu. Alde batetik, adinaren batezbestekoari begiratuta, parte-hartzaileak gazteagoak izan dira. "Urte zaila izan da pertsonaiak aukeratzeko", azaldu zuen Juanjo Etxarte zuzendariak Durango Pasioa aur-

kezteko ekitaldian. Guztira, 120 bat lagunek parte hartu zuten emanaldietan, eta belaunaldi berriei eskerrak, partaideen adinaren batezbestekoa 30 urtekoa izan zen.

Antzezlanean, Egoitz Iraurgi sartu zen Jesusen azalean, eta Susana Alarconek interpretatu zuen Maria. Alarconek prentsaurrekoan jakitera eman zuenez, aurretik Mariaren papera egin zutenek asko lagundu zioten antezzlana prestatzen.


Bigarren nobedade nagusia azken entsegua streamingez ematea izan zen. Ekitaldiak 50.000 euroko aurrekontua izan zuen.



Gazteen XXVII. BBK saria Durangaldera

Kultura - DURANGALDEA

> **BERTSOLARITZA.** Durangaldeko taldeak irabazi du aurtengo XXVII. BBK sariketa. Irune Basagoitik, Ander Sarriuartek, Eider Gallastegik, Gorka Pagonabarragak, Iruri Altzerekak eta Bittor Altubek osaturiko seikoteak jantzi du txapela. Hain zuzen ere, azken honek finalisten arteko bizkaierarik egokienaren saria ere jaso zuen finalean. Durangaldeko taldeak 466,50 puntu poltsikoratu zituen; Beste finalistak, Hego Uribeko taldeak, 407 puntu. Ainhoa Urien abadiñarra ibili zen gai-jartzaile lanetan.



'Soinujolearen semea', Sagardoyren lana

Kultura - DURANGO

> **ZINEA.** 2018an Goya saria irabazi eta gero, Eneko Sagardoy aktore durangarrak lanean jarraitu du. Zinea eta antzerkia egin ditu, eta, tartean, *Soinujolearen Semea* pelikula. Lan honetan, aktore durangarra Lubisen azalean sartu da. "Bost eguneko grabazioan, Lubis pertsonaia sakon eta sineskor bat sortzea izan da zailena", adierazi zion Sagardoyk ANBOTOri.

Soinujolearen semea pelikulaz gainera, beste hainbat lanetan ere parte hartu du. Tartean, *Patria* saila grabatzen ibili da.



DURANGO
Udala · Ayuntamiento

www.durango-udala.net





Oihana Azkorbebeitia korrikalari abadiñarrak distira egin du Munduko Kopan

Kirola - ABADIÑO

> **MENDI LASTERKETAK.** Oihana Azkorbebeitia korrikalari abadiñarrak hasiera ezin hobea eman zion denboraldiari. Japonian ekin zion Munduko Kopari, eta kilometro bertikalen Munduko Kopan garaipena lortu zuen. "Balorazioa oso positiboa

da. Behin Japoniara joanda, bertikala eta lasterketa, biak egitea zen gure asmoa. Bertikala egitea nire nahi bat izan zen, eta inongo pretentsiorik barik aritu nintzen. Irabazi egin nuen eta pozarren nago", azaldu zuen. Harrezkero, hainbat izan dira Az-

korbebeitiak lortutako garaipenak. Garaipenak lortzeaz gainera, onenen artean lehiatu da munduko lasterketarik esanguratsuenetan, eta maila ezin hobea eman du. Kilometro bertikalen Munduko Kopa, esaterako, hirugarren postuan amaitu zuen, eta Skyrunning Munduko Kopako finala zazpigarren postuan. "Denboraldi hasieran ez neukan pentsatuta bertikalen munduko zirkuitua egitea, baina Japoniako garaipenaren ondoren, beste hiru probatan parte hartzea erabaki nuen. Munduko Kopako probetan hiru podium lortzea eta sailkapen nagusian hirugarren sailkatzea gauza handia da", adierazi zuen.



'Tupust!' Eguren, Eibar eta Amurizaren lana

Kultura - DURANGALDEA

> **KOMIKIGINTZA.** *Tupust!* antologia feminista aurkeztu dute aurten. Lan kolektibo honetan, hogeit hamar egilek parte hartu dute, tartean Irati Eguren, Eider Eibarrek eta Miren Amurizak. "Komikigintzaren eredu tradizionala, maskulinoa, deseraiki gura genuen, eta bestelako bat sortu, euskaratik", adierazi zuen Irati Eguren.



Maku Florentino Sahararik kanporatuta

Herririk herri - ELORRIO

> **GIZARTEA.** Maku Florentino elorriarra eta Diana Pardo Aaiunera joan ziren apiril hasieran. Lagun batzuen etxean zeudela, Marokok Mendebaldeko Sahararik kanporatu zituen. "Poliziak esan zigun ez ginela ongietorriak, eta ekintzaileekin bilera bat egiten ari ginela", azaldu zuen Maku Florentinok.



IURRETA Tellitu-n

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Ilusioz proiektu
berriak garatzen

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com



Miren Amurizak 'Basa' liburua kaleratu du

Kultura - BERRIZ

> **LITERATURA.** Miren Amuriza Plaza berriztarrak *Basa* eleberria publikatu zuen apirilean. 2017an irabazitako Igartza Sariaren laguntzagaz argitaratu du bere lehenengo nobela.

Sabina, 80 urteko andre basa da istorioko protagonista; zaintzailea eta zaindua izateak sortzen dion gatazka azaleratzen du *Basak*. "Sabina base-rrian bizi da, eta ezinduta eta ohean dagoen koinatu bat du bere kargu. Konfliktu bi agertzen dira hor. Alde batetik, Sabina zaintzailea dago, eta bere koinatuagaz dituen gatazkak. Bestetik, eta tramaren hasiera hor dago, Sabinari operazio bat egin behar diote txiki-keria bat dela-eta, eta, bat-batean, bere seme-alabek zaindu egin gurako dute. Hor dator bigarren talka. Eta hor zaintzaren ikuspegi ezberdin bi ikusten dira", esan du Amurizak.

Basaren sormen prozesuari dago-kionez, eleberria idazteak eta bertso txapelketarako prestatzeak antzekotasun batzuk eduki ditzaketela onartu zuen Amurizak.



Zornotzako bidesaria kentzea eskatu dute

Herririk herri - DURANGALDEA

> **MUGIKORTASUNA.** AP-8 Peajerik Ez plataformak Zornotzako bidesaria kentzea eta 24 orduren barruko joan-etorriak doako bihurtzea eskatu zuen apirilean. Plataformako kideek azaldu zutenenez, "administrazioagaz jarre-

rak hurbiltzeko" asmoz egin zituzten eskari horiek. Gainera, inguruan bizi direnentzat eta bertatik pasatzen direnentzat N-634 errepideko trafikoa "drama" bat dela jakitera eman zuten. Bestalde, autobidea doakoa izanda, N-634ko trafikoa "murriztu" egingo litzatekeela eta Iurretatik Zornotzara bidean bizi diren auzokideak "seguruago eta lasaiago" biziko litzatekeela esan zuten.



Sergio Gomez zornotzarra kafe aditua

Akuilua - ZORNOTZA

> **GIZARTEA.** Sergio Gomez zornotzarrak kalitatezko kafeagaz edariak prestatzen eta zerbitzatzen dituzten adituen trebakuntzan lan egiten du. Kafearen zentzumen epailea eta epaile teknikoak ere bada. Gomezek ANBOTOri jakinarazi zionez, egunean zortzi kafe hartzen ditu, batez beste. Bere berbetan, kafearen onurak gehiago dira kalteak baino.



"Musikara itzultzeko aukera izan dut"

Akuilua - ZORNOTZA

> **MUSIKA.** Eider Etxeandia zornotzarra artista izateko jaio zen. Hala dio berak. Hala ere, argi du bide zaila dela aurretik. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak eta Magisteritza ikasketak egiten dabil, eta saskibaloian eta errugbian jokatzen du. Horrez gainera, Ilargi Beltza erromeria taldean abestu du. Aurten, gainera, ETBko Bagoaz 'talent show'-an parte hartu du. "Baztertuta utzi nuen zerbait berreskuratzeko modua izan da Bagoaz. Kirola eta musika aukeratu beharrean izan nintzen orain urte batzuk; kirola aukeratu nuen eta ikasketak ere horretara bideratu. Orain, musikara itzultzeko aukera izan dut", azaldu zuen Etxeandiak.

San Pio, 3
ELORRIO
Tel.: 946 582 261
elorrrio@ikastola.eus

ARDURAZ HEZI, NORTASUNEZ HAZI

www.elorrikoikastola.eus

Ateak zabalik dituzue, etorri eta ezagutu gaitzazue!

Legealdi berri baterako irudiak utzi dituzte udal hauteskondeek

Erreportajea - DURANGALDEA

> UDAL HAUTESKUNDEAK

Durungaldean aurpegi berri asko agertu dira alkatetzetan. Batzuk estreinakoz daude, baina badira legegintzaldia errepikatuko dutenak ere, eta lau urte gehiago iraungo dutenak herriko udalen buru izaten maiatzaren 26ko hauteskundeen ondoren. Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoari dagokionez, emaitza estuak egon ziren. Lau urtean EH Bildu eta Herriaren Eskubidea agintean egon eta gero, EAJk berreskuratu du ardura Amankomunazgoan, Abadiñoko Independenteen babesagaz.

EAJk zortzi alkatetza lortu ditu guztira. Abadiño, Atxondo, Berriz, Garai, Iurreta, Mallabia, Zaldibar eta Zornotza bereganatu ditu alderdi jeltzaleak. EH Bilduk, ostera, bost herritan gobernatuko du datozen lau urteetan: Durangon, Elorrion, Izurtzan, Mañarian eta Otxandion. Durangon ez beste lau he-

rrietan gobernatzen aritu den taldeari babes berresi diote herritarrek.

Denera, sei aldaketa egon dira orain lau urte egin ziren hauteskundeekin alderatuta. Esanguratsuak izan dira Durangoko, Abadiñoko, Zaldibarreko eta Atxondoko kasuak. Azken horren kasuan, 12 urteko agintaldiaren ondoren, alderdi jeltzaleak egoerari buelta ematea lortu du, eta Xabier Azkarate izango da alkate datozen lau urteetan.

Bestalde, Durangon, inoiz ikusi ez dena bizi izan zuten. Alderdi subiranistak lehenengoz lortu du alkatetza. EAJk bildu arren botorik gehien, Ima Garrastatxu buru duen zerrenda Herriaren Eskubidea alderdiagaz batu eta gobernu ezkertiarra osatu dute biek. Abadiñon eta Zaldibarren EH Bilduren zerrendak izan dira bozkatuenak, baina AIK eta PSE-EEk, hurrenez hurren, EAJ eraman dute alkatetzara.



*Durungaldea
bizi eta ezagutu!*

**Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak,
Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa**

ABADIÑO · ATXONDO · DURANGO · ELORRIO
IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.mdurango.org



30 pintxo aurkeztu dituzte Jan Alain

Herririk herri - ZORNOTZA

> **LEHIAKETA.** Lehiaketarako beren-beregi egindako pintxoak dastatzeko eta euretariko onena bozkatzeko aukera izan zuten maiatzaren 20tik ekainaren 2ra, Zornotzan. Pintxo lehiaketaren 8. aldian, Zornotzako taberna eta jatetxeek 30 pintxo aurkeztu zituzten. Ancora eta Uranga jatetxeek irabazi zuten Zornotzako pintxo lehiaketa.



Kili-Kili LGTB elkartea jaio da Durangon

Herririk herri - DURANGO

> **GIZARTEA.** LGTB kolektiboaren eskubideen aldeko tokiko elkarte baten beharra sentitu, eta batzeko pausoa eman zuten. Iraide Legina elkarteko kideak esan zuten "Durangon egiten diren ekimene-tan kolektiboaren presentzia bermatu" gura dutela. Tokiko aukera sortzeko eta gertutasuna bermatzeko ekin zioten lanari. Kili-Kili taldera batzeko deia ere egin zuten.



"Migratzailea animalia lez tratatzen dute"

Erreportajea - DURANGALDEA

> **MIGRAZIOA.** Libe Arando, Ane Amesti eta Libe Mimenza elorriarrak lanean jarraitzeko gogoz bueltatu dira Greziatik. Samos irlan egon dira, errefuxiatuen alde lan boluntarioa egiten. 5.000 migratzaile daude ez atzera ez aurrera, Europara heldutakoan atek zarratuta topatu dituztelako. Mugak zabaltzeko eta elkartzasuna sustatzeko asmoz jaio den Hemendik Harantz Durangaldea taldeko kideak dira.

"Garaipenak konfiantza eman dit"

Kirola - ABADIÑO

> **TXIRRINDULARITZA.** Ilart Zuazubiskar abadiñarrak bere kirol ibilbideko garaipenik garrantzitsuena eskuratu zuten maiatzean, UCIko mailarik goreneko lasterketa batean. Kazakhstanen jokatu ziren Silk Way Series probetan irabazi zuten, hain zuzen ere. Nazioartean lortu duen lehenengo garaipena izan zen. "Urte gogor baten ondoren, emaitzak behar nituen", esan zuten.



Abadiñoko Euskal Ezkontza

Akuilua - ABADIÑO

> **ZELAIETAKO JAIAK.** Ospakizun handia izan zuten Abadiñoko San Trokaz jaietan, maiatzaren 18an, 12:30ean. Euskal ezkontza antzinako erara egin zuten eta ekitaldiko antolatzaile eta protagonistetako batzuk Eneko Iturriagaetxebarria, Jaione Urien eta Jose Antonio Salterain abadiñarrak izan ziren. Hau esan zuten egin genien elkarrizketan: "Euskal ezkontzara baserritar jantzita etortzera animatu gura dugu jendea".



MALLABIKO UDALA

Tel.: 943 171 461

www.mallabia.eus





Askatasuna hitzez sortzeko eta sorkuntza ahotsez askatzeko

Erreportajea - DURANGO

Hitzez eta Ahotsez ekimenak euskal literatura jendarteratzea du helburu, eta aurtengo edizioak, seigarrenak, 'Askatasuna' izan zuen ardatz. "Proposamenak harrera ona izan zuen planteatu genuenean. Hori bai, apur bat gehiago kostatu zaigu testuak topatzea", azaldu zuen Marisa Barrena antolatzaileak. "Askatasuna bere zen-

tzurik zabalenean planteatu dugu, askatasuna zein askatasun eza", gaineratu zuen Endika Blanco kideak. "Sortzaileei ere apur bat gehiago kostatu zaiela uste dut", arrazoitu zuen Barrenak. Hala ere, ahaleginak me-rezi duelakoan daude antolatzaileak: "Ale ederrak batu ditugu", borobildu zuen Blancok. Euskal literaturako

egile handi askoren testuak entzun ziren Plateruenean. Durangaldeko zenbait idazleren testuak ere irakurri zituzten; eurek ere parte hartu zuten irakurraldian. Artean, Mila Salterainek eta Peru Magdalenak.

Gaiaren inguruan, ia 300 parte-hartzailek eurek aukeratu edo sortutako testuak irakurri zituzten. Antzerkila-

riak, musikariak eta dantzariak ere aritu ziren euskarazko literaturaren piezak taula gainean erakusten. "Bakotzak bere ekarpena egin gura izan dio ekitaldiari, oinarrian literatura edukita, noski", esan zuten.

Urteroko hitzordu bilakatu da Hitzez eta Ahotsez. Uxue Alberdik eman zion hasiera aurtengo edizioari, *Askatasuna Bertsoraino* berbaldiagaz. Urteroko solasaldi dialogikoak egin zituzten otsailean eta martxoan, eta apirilean Dorleta Kortazar ipuin kontalariak *Berba Kateauak* ipuin saioa eskaini zuen.

Italiako Giroa Durangaldetik

Erreportajea - DURANGALDEA

> **TXIRRINDULARITZA.** Italiako Giroa jokatu zen ekainean, eta ETBK zuzenean eskaini zituen eguneko etaparen nondik norakoak. Bilboko estudioan batu ziren lantaldeko kazetari bi eskualdekoak dira: Alfontso Arroio abadiñarra eta Otxandion bizi den Alessandro Ruta italiarra.

Arroio ETBko kazetari ezagunetarikoa bat da eta urte askoko esperientzia du. Ruta, ostera, berria da gehienentzat. Kirol kazetaria da formakuntzaz, eta hiru urte eta erdi daramatza Otxandion bizitzen. Egunetik egunera hobeto moldatzen da euskaraz, eta ETBren eskaintza heldu zitzaionean ez zuen dudarik izan. "Zergatik ez? Beti positiboa izan naiz", zioen. Rutak inork baino hobeto ezagutzen ditu irudietan agertzen ziren tokiak, eta Giroaren emanaldietan ezagutarazi zituen.



"Egiten zizkiguten harrerak oroitzen ditut"

Erreportajea - DURANGO

> **FUTBOLA.** Durangotik umoretsu eta hau eta bestea agurtuz paseatzen ibiltzen den aitita ilezuriaren atzean, Athleticen historiako atezainik onenetarikoa dago. Carmelo Cedrun (Zornotza, 1930) *Harresia* ezizenez ezagutzen zuten eta Liga bat eta hiru Kopa irabazi zituen. "Telmo Zarrak 'onena zara' esaten zidan", gogoratu zuen.



"Modan arriskatzea gustatzen zait"

Erreportajea - DURANGO

> **MODA.** 80ko hamarkadako emakumeen ausardiak inspiratzen du Maialen Illescas diseinatzailea (Durango, 1990). Moda munduan lehenengo pausoak ematen dabil Goienkalen duen estudioan. Illescasek dibertsioagaz lotzen du moda; kolore biziak eta distirak nabarmentzen dira bere diseinuetan. Ilusioa darie bere berbei.



LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2020

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Hezgarri Abarkateruena
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Fonda
DURANGO	Hitz Liburudenda Arkarazo
ELORRIO	Ilargi
GARAI	Herriko Taberna
IURRETA	Urki
IZURTZA	Herriko Taberna
MALLABIA	Bastida Taberna
MAÑARIA	Bizkarra
OTXANDIO	Danoena Taberna
ZALDIBAR	Imendia
ZORNOTZA	Ayerdi paper-denda



ZORNOTZA

Otsaila

www.kurutzagaikastola.es

50 urte!

Derrigorrezko Hezkuntza eskaintza - Batxilergoa - Lanbide heziketa
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH - Batxilergoa
Haur Hezkuntzako Goi Teknikari Titulua - Gaitasun profesionalak: arreta soziosanitarioa, ur sorosle...

ib ibaiizabal
www.ibaiizabalikastola.es

leartibai
Markina-Xemein (Bizkaia)
944.147002 / info@leartibai.es

ate irekiak 2020 apirilak 25

anboto



Berbaro elkarteak, 30 urte Durango euskalduntzen

> **EUSKARA.** Berbaro euskara elkarteak 30 urte egin ditu aurten, eta joan zen ekainean egun osoko jaialdi batez ospatu zuten efemeridea. 30 urte ez dira bat-batean egiten, lan asko dago atzetik; iraganean eginikoa baloratu eta etorkizunera begira ipintzeko eguna izan zen. Egurdiko bazkarian, euskaltzaleek bete egin zuten Plateruena.

Bazkalostean, Markel Sanchez elkarteko gerenteak berba egin zuen. Berbaroren ibilbideko proiektuen errebasoa egin zuen: *Eraz* eta ANBOTO, Plateruena, Berbaro taberna, Haur Literatur Aretoa, euskararen inguruko gazte taldeak, gazteentzako motibazio tailerrak, Olgetan proiektua... Horiek eta gehiago sortu arren,

"trabak" ere badirela eta Durango euskalduntzen segitzeko asmoa dutela esan zuen. "Orain 30 urte lez, gaur ere bai, orduko ilusioberdinagaz", Sanchezen esanetan. Jende berria erakartzea ere egongo da helburuen artean. "Berbaroren atzean herri mugimendu indartsu eta ilusionatu bat sortzen hastea" beharrezko ikusten dute.



Odol emaileen beherakada eskualdean

> **Erreportajea** - DURANGALDEA

> **DONAZIOA.** Odol emaileen kopurua beherantz doala-eta, Bizkaiko Emaileen Elkarteko presidente Anton Cabok kezka agertu gura izan zuen. Odola emateak gure eguneroko osasun sisteman duen garrantzia azpimarratu zuen ekainean egin genion elkarriketan, eta deialdia egin zuen emaile berriak egiteko.

"Errepikatze moduko esperientzia"

> **Kirola** - DURANGO

> **BIZIKLETA.** Javi Agirrek eta Ester Garciak Norvegia eta Santiago de Compostela bizikletan lotzeko erronka bete zuten. 53 egun behar izan zituzten batetik besterako 5.266 kilometroak egiteko. Ekainean heldu ziren katedralaren aurreko Obradoiro plazara. Nekatuta zeuden, baina pozik. "Errepikatze moduko erronka ederra izan da", baloratu zuen Agirrek.



Lidia Cañete, arku-tiroan nagusi

> **Kirola** - DURANGO

> **ARKU-TIROA.** Ekainaren hasieragaz batera, Lidia Cañete durangarrak lehenengoz parte hartu zuen betaroen txapelketan, aurten 50 urte egin ditu eta. Zaldibar Arku taldeko tira-

tzailea txapelkun geratu zen eta, gainera, errekor bi apurtu zituen. Euskadin zein estatuan, ez dago puntuazio handiagorik duen beste betaronorik. Espainiako txapelketa izan zuen hurrengo zita, Euskadikoa lehiatu eta astebetara. Bere esanetan, "arku-tiroan ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean. Kirola bateratu egin beharko litzateke", azaldu zuen.



Isasi eta Gorostiza, Euskadiko txapeldun

Kiroldegietako lanuzteak hasi dira Durangaldean

Herririk herri - DURANGALDEA

> **GREBA.** Bizkaiko kirolguneetako hitzarmen berria sinatzeko asmoz, Abadiñoako, Elorrioko eta Berrizko kiroldegietan lanuzteei ekin zieten. ELA, LAB eta CCOO sindikatuek deitu zuten lanuzteetara. "30 urteko hitzarmen iraingarria dago indarrean". Abadiñoako kiroldegiko langileek denboraldiko lehenengo egunagaz batera egin zuten lehenengo geldialdia, ekainaren 15ean, lau orduz. Urte osoan zehar hainbat greba egin dituzte.



Kirola - ELORRIO

> **TXIRRINDULARITZA.** Errepideko aurtengo Euskadiko Txapelketa berezia izan zen, hainbat konturengatik. Alde batetik, herri bereko txirrindulari bi izan zirelako txapeldun, Ziortza Isasi (Eneicat) eta Aroa Gorostiza (Bizkaia-Durango) elorriarrak, nagusietan eta 23 urtez azpiko mailan, hurrenez hurren; bestetik, ia lasterketa osoa elkarregaz ihes eginda eman zutelako, eta, azkenik, Gorostizak bere ibilbideko lehenengo garaipena lortu zuelako, Ugaon, Isasiren aurretik helmugaratuta. Asteburu berean, Isasik beste bigarren postu bat ere erdietsi zuen, Barrundian.



Prostituzioaren atzean dagoen esplotazioa

Erreportajea - DURANGO

> **PROSTITUZIOA.** Amelia Tiganus aktibista feminista bizirik itzuli zen infernutik. Esplotazio sexualaren biktima izan eta gero, bere burua berreraiki zuen, eta prostituzio-etxeen atzean dagoen errealitatearen berri ematen dihardu. Norberaren kalean zein herrian gertatzen da. Milaka emakume ikusezinek bizi duten esklabutza egoera da. Milaka gizon puterok kontsumitzen duten merkatua da.

EUSKARAZ ETA BERDINTASUNEAN BIZI EGUNEZ EGUN!

berrizko UDALA
BERRIZKO UDALA

Tel.: 946 824 036
www.berriz.eus

EUSKARAZ NAHIAGO
eskerririk asko

2016 **Bikam**
erabiltzaileei kanitate zuzentzaia





'Hel horri!' lelopean, Ibilaldia Elorrioren izango da, 2020ko maiatzaren 31n

Herririk herri - ELORRIO

> IBILALDIA. 2020ko Ibilaldia Elorrioko Txintxirri Ikastolak antolatuko du, hirugarrenez. *Hel horri!* lelopean, maiatzaren 31n ospatuko da Bizkaiko ikastolen jaia. "Datorren urteko Ibilaldia ospatzea gura genuke, ikastola eta euskal kultura Euskal Herriko zirrikitu guztie-

tara zabalduz", adierazi zuten Elorrioko Txintxirriko kideek ekainean egindako prentsurrekoan.

Elorrioko Txintxirri Ikastolak 1968ko urtarrilaren 12an zabaldu zituen ateak. Hainbat ekimen eta egitasmotan parte hartu dute harrezkero. 1999ko eta

2006ko Ibilaldiak antolatu zituen. Eta, orain, elorriarrek beste erronka bat dute esku artean: 2020ko Ibilaldia. Txintxirriko kideek jakitera eman zuten, dagoeneko hasita daude lanean. "Elorrio eta elorria abiapuntu hartuta sortu dugu leloa", esan zuten Txintxirri Ikastolako kideek.

Txintxirriren hezkuntza eredua herriratzea, erronka berriei aurre egiteko baliabideak eskuratzea eta herriko eragile eta taldeekin harremanak gehiago sendotzea direla helburuak jakinarazi zuten. Horretarako, parekidetasuna, euskara, hezkidetzeta, jasangarritasuna, parte-hartzea eta inklusioa izango dituzte zehar-lerroak.



Gerediagak Dorita Ruiz omendu du

Herririk herri - DURANGALDEA

> SARIA. Dorita Ruiz irakasleak gogor lan egin zuen Hezkuntza Bereziaren arloan, hainbat urtean zehar, eta Gerediaga elkarteak lan hori omendu gura izan zuen ekainean. Ekitaldian, Teila saria eman zion, Merinaldeaz kanpoko herritarrek eskualdean eginko lana edo sortutako loturak esker-tzeko erabiltzen duten saria.



Arripausuetako presa eta pasabidea kinka larrian

Herririk herri - DURANGO

> INGURUMENA. Arripausuetako presa eta harri-pausuen pasabidea desagertzeko arriskuan daude, enpresa eraikitzaile batek obra egiteko asmoa agertu ondoren. Obra hori egiteko, URA agenzia publikoak Ibaizabal erreka bideratzeko baimena eman zion enpresari, eta udalak kontrarik esan ezean aurrera egingo du. Segurtasuna, ingurumena, asmo ekonomikoak eta ondare historikoak batzen dituen gaia da. URAk Bizkaiko buletin ofizialaren maiatzeko edizioan argitaratu zuen obrarako baimena. Presa, harri-pausuak eta apur bat beherago dagoen Iurretarako zubia - Deabruaren zubia lez ezaguna - kentzea ahalbidetzen du. Enpresa eskatzaileak proiektu bat du Txibitenan etxeak egiteko.

Hemendik Harantz elkartearen jaialdia

Herririk herri - ELORRIO

> ERREFUXIATUAK. 2016an, Hemendik Harantz elkartea jaiotzen Arabako Errioxan, errefuxiatuentzat janaria eta arropa jaso eta haien ahotsa izateko asmoz. Eta orain hile batzuk, Durangaldeko hainbat kidek Hemendik Harantz Durangaldea elkartea sortu zuten, mugak zabaldu eta elkartasuna sustatzeko. Sostengu ekonomikoa lortu eta herritarrak kontzientziatzeko, egun osoko jai bat egin zuten Elorrioren.





Bigarren eskuko azoka egin dute Berrizen

Herririk herri - BERRIZ

> **AZOKA.** Bigarren eskuko Berriztu azokaren zazpigarren edizioa egin zuten ekainean. Andikona Irazabal eta Asier Isasi berriztarrek postua ipini zuten. Irazabalek hiru bider atera ditu bere produktuak kalera, eta Isasik zazpi bider. "Etxean hainbat traste ditugu, eta azoka hau aproposa da gauzak aldatu, saldu eta trukatzeko".



"Urte hasierako helburuak bete ditugu"

Kirola - ELORRIO

> **FUTBOLA.** Zazpi urteren ondoren, Iker Saenz de la Cuestak Elorrioko Buskanta taldea entrenatzeari utzi zion ekainean, maiatzean iragarri lez. Euskal Ligara jaitsi berritan hartu zuen taldea, eta bere gidaritzapean Hirugarren Mailara igo ziren lehenengo, eta Bigarren B Mailara gero. Ekainean, etapa bat ixteko unea zela erabaki zuen.



"Elkargune bat sortu gura dugu Amillenan"

Akuilua - ATXONDO

> **KULTURA.** Amillena benta zabaldu zuten Arrazolan, taberna eta egunerokorako produktuak saltzeko denda txikia eskura ipinita. Jatetxea ere zabaldu zuten ekainaren 21ean. Vanesa Calvo Corralesek, Lur Moragues Saituak eta Jose Romero Hernandezek kultur transmisioari eta sorkuntzari ere lekua eskaini gura izan zieten. Proiektuan sinistu duen jende askoren babesa izan zutela azaldu zuten.

Elkartasunez eta mimoz jositako zapiak

Erreportajea - ABADIÑO

> **DISEINUA.** Yanire Granero Tenari minbiziaren aurka borroka egitea tokatu zitzaion, eta prozesu hartatik jaio zen bere egungo proiektu laborala, Memiimo. Ilea jaustearen ondorioz zapiak erabiltzen hasi, eta bere diseinuak garatzeko ideia otu zitzaion: "Tratamenduan ileordeak eta turbanteak erabiltzen hasi nintzen, baina denak ilunak iruditzen zitzaizkidan".



Otxandion egindako Sufrimenduaren Mapa

Herririk herri - OTXANDIO

> **TORTURA.** Otxandioko Sufrimenduaren Mapak hamasei herritarrek jasandako tortura kasuak jasotzen ditu. Gerra zibiletik gaur egunera arte giza eskubideen urraketak jasan izandako herritarren kasuak jasotzen ditu txostenak. Giza eskubideen urraketak jasan dituzten herritarrei errekozimendua aitortzeko helburuagaz argitaratu zuten. Euskal Memoriaren Fundazioak prestatu zuen txostena Otxandioko Udalarentzat.



ekin group

EUROPA
AMERIKA
ASIA



ZURE BAZKIDE GLOBALA BROTXAKETA ETA HOTZEKO IJEZKETA LANEI IRTENBIDEA EMATEKO

www.ekin.es

Arriagane industrialdea (Boroa auzoa) 48340 Amorebieta (Bizkaia) TEL +34 629 625 096





Xabi Rojo (LAB sindikatua): "Dena eman dugu enpresa aurrera ateratzeko, eta ez digute utzi"

▣ **Herririk herri** - IURRETA

> **EKONOMIA.** Odi Bakar enpresaren likidazio plana gauzatu bitartean, borrokan jarraituko dutela iragarri zuten langileek uztailean. Azken momentura arte borrokan egon direla nabarmendu zuen Xabi Rojo Escuderok (Durango, 1976), Odi Bakarrek behargin ohi eta LABeko ordezkariak, eta hala jarraituko zutela. "Dena eman dugu enpresa aurrera ateratzeko, eta ez digute utzi", azaldu zion

ANBOTOri. Epaileak ekainean onartu zuen likidazio plana, eta bertako 36 langileak langabezian geratu ziren. Hala ere, langileen esanetan, lan harremana eten den arren, urteetan iraun duen gatazka ez da amaitu. Likidazio plana nola ematen den gertutik jarraituko dutela esan zuen Rojok. Izan ere, Odi Bakarrek 20.000 euro zor zizkion sasoi hartan langile bakoitzari, batez beste.

LABeko ordezkariak salatu zuen Odi Bakarrek langileak "engainatu" egin dituztela. "2017ko urrian enpresa konkurtsoan sartu zenetik urtarrilera arte, gerentziak behin eta berriro esan digu enpresa erosiko zuela. Konkurtso egoeratik irtetea zaila da eta egoera horretan dagoen enpresa bat erosteak gastu gehigarriak ditu. Dudak genituen, baina beti esan izan digute enpre-

sa erosiko zutela", azaldu zuen LABeko ordezkariak. 2019ko urtarrilean konkurtso-administratzaileak enplegu erregulazio espedientea aurkeztu zuen lan taldearentzat. Horren aurrean, inbertsore bila hasi ziren langileak, eta eskaintza ekonomiko bat egiteko prest zegoen inbertsore bat ere aurkitu zuten, Iurretako lantokia erosteko prest zegoena.



Margogintzari eskainitako bizitza

▣ **Kultura** - DURANGO

> **MARGOGINTZA.** Gaixotasun luze baten ondorioz, Jaime Vicario margolari durangarra hil zen, uztailean, 60 urte-gaz. Magisteritza ikasketak egin zituen arren, pintura zuen pasio betidanik, eta artelan ugari egin zituen. Hainbat urtean, arte, pintura eta marrazketa irakaslea ere izan zen, eta bizitza osoa margogintzaren pasioari eskaini zion. Oso pertsona maitatua izan zen Durangaldean, eta pertsona askok bere bizikleta gainean gogoratuko dute, Durango zeharkatzen.



Bizikletak garbitzeko gunea zabaldu dute

▣ **Herririk herri** - IURRETA

> **KIROLA.** Iurretarrek bizikletak garbitzeko gunea dute uztailetik, Ibarretxe kultur etxearen alboan. Bizikleta bi garbitzeko tokia egokitu dute, mangera bikoia. Gunea erabili ahal izateko, 16 urtetik gora izan behar da eta herrian erroldatuta egon behar da. Egunero dago erabilgarri, 24 orduan, eta kultur etxean eskaria beteta, giltza pertsonal eta besteraezina emango zaio erabiltzaile bakoitzari. Udalak 15.000 euroko inbertsioa egin du.

Emakume pilotariek elkarte sortu dute

▣ **Kirola** - MALLABIA

> **ELKARLANA.** Euskal Herriko 80 pilotariek Emakume Pilotarien Elkarte sortu zuten, emakumeen pilota bultzatzeko, erregulatzeko eta egituratzeko. Azken urteetan, emakumeen pilotak oihartzuna irabazi du. Baina gorakada hori ez da proportzio berean islatu pilotarien lan baldintzetan. Elkarteko kide den Amaia Araiztegi mallabitarraren berbetan, enpresak negozio itzela egiten ari dira euren kontura. Egoeragaz nekatuta, aginte makila hartzea erabaki zuten.





Auzo Alai elkarteak jaio da Madalena auzoan

Herririk herri - DURANGO

> **ELKARTEA.** Auzo Alai elkarteak sortu zuten Durangoko Madalena auzoan, auzoaren eta auzotarren beharrezanasetzeko lan egiteko. Auzoari "dinamismoa" emateko jaio zen elkarteak, eta ahalegin berezia egingo dute auzoko edadetuei laguntzeko.

Babesa adierazteko elkarretaratzea

Herririk herri - ABADIÑO

> **ELKARTASUNA.** Auzitegi Gorenak hamahiru urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zion 44 urteko gizon abadiñar bati, 2009tik Abadiñoko emakume bati eta sasoi hartan adin txikikoak ziren bere alaba biei sexu erasoak egiteagatik. Erasoak gaitzesi eta hiru emakume biktimak babesteko, abadiñarrek elkarretaratzea egin zuten Txanporta plazan, borobilean ipinita.

Elkarretaratzean, eraso biktimitariko batek berba hartu zuen hiruren ize-nean, eta hasieratik alboan izan dituztenen babesa eskertu zuen. "Ez da bide erraza izan, baina, biolentzia jasaten dutenak salatzera animatzen ditugu", gogoratu zuen.



"Bizirik eta familia osoa elkarregaz gaude"

Erreportajea - OTXANDIO

> **GIZARTEA.** Siriako gerratik ihes egin eta odisea bat igaro ondoren heldu ziren Jim Kerejol eta Mamand ama-eme kurduak Otxandiora, orain urte bi inguru. Besoak zabalik

hartu zituztela esan zioten uztailean ANBOTOri, eta etorkizunari itxaropentsu begiratzen diotela. Sirian gerra zibila hasi zenetik, makina bat miseria ezagutu dituzte biek eta euren familiak. "Bizirik eta familia osoa elkarregaz gaude; askok ezin dute berdina esan", zioten. Etorkinei laguntzeko sortutako Otxandioko Harrera Taldekoen babesa izan dute.

Reyesek agur esan dio 14 urteko ibilbideari

Kirola - DURANGO

> **AGURRA.** Azken 14 urteetan Mendibeltz klubeko jokalaria, entrenatzaile eta presidentea izan eta gero, Juanma Reyesek kluba utzi zuen. Aita izan zen berriro eta bizitzako etapa berri bati ekin zion. Lantalde batu bat utzi duela esan zion ANBOTOri uztailean, eta giro onari eutsiz gero etorkizun

oparoa iragarri zion hainbeste urtez defendatu duen klubari. Erabakia hartzea asko kostatu zitzaioela onartu zuen durangarrak.

Hasitako etapa berrian, partiduetara joaten jarraituko duela azaldu zuen, berdina ez dela izango onartu arren. Era berean, urte hauetan guztietan egindako lagunak izan zituen gogoan. Taldearen sorrera ere hartu zuen gogoan: "Futboleko ikusitakoak ikusita, hasieratik argi nuen lehia barik giro ona zainduko zuen kluba sortu gura nuela".





Elorriko udala

Elorri urte osoko Turismoa

Herriko Plaza, 48230 Elorri (Bizkaia) · Tel.: 94 658 712

www.elorrioturismo.eus





Zornotzako Barnetegiak euskara ikasi eta praktikatzeko aukera eman du

Erreportajea - DURANGALDEA

> **EUSKARA.** Uda sasoia egokia izan daiteke euskararen ezagutza hobetzeko. Klase intentsiboak, irteerak, barnetegietan egonaldiak... Zornotzako Barnetegikoa aukera horietako bat izan da aurten ere udan. Ikasle ugari pasatu ziren udan, eta hamabostaldiko kopurua aldatzen joan zen.

Mailaren arabera antolatzen dituzte ikastaroak. Egunean sei bat ordu klaseetan ematen dituzte, eta tarteetan ere euskaraz jarduteko aprobetxatzen dute. Beñat Romero irakasle eta kanpo ekinzen arduradunaren berbetan, "jendeak asko baloratzen du bere mailako ikasleekin praktikatu ahal izatea, ze maila al-

tuagokoekin kostatzen zaie". Klasetik aparteko ekintzetan, besteak beste, kultur sortzaileak ekartzen ahalegintzen dira. Eneko Sagardoy aktoreak, Miren Amuriza bertsolariak, Gatibuko Jon Fresco bateria-jotzaileak eta Edorta Jimenez idazleak bisitatu dituzte aurten. Bestalde, aste biko euskaraz bizitzeko

eta Euskal Herriko bazterrek ezagutzeko aukera eskaintzen du urtero AEK ibiltariak ere. Aurtengoa 23. aldian izan da eta nobedadeekin etorri da. Izan ere, bizikletako ibilbidea bertan behera utzi eta indarrak oinezkoan kontzentratu zituzten. Hartara, aurten, bat beharrezko ibilbide bi eman dituzte aukeran, eta eurretari bat berria izan da, gainera: Oion herrian (Araba) hasi eta Lekeition amaitu zuten. Durangaldek ere igaro ziren, Otxandiotik eta Garaitik, hain zuzen ere. Euskal Herriko askotariko paisaietan pentsatuz osatu zituzten ibilbideak, Asier Arroita AEK ibiltariako antolatzaileak ANBOTOrri esan zionez.



Dantzari Dantza parekidea lehenengoz

Herririk herri - BERRIZ

> **BERDINTASUNA.** Dantzari Dantza parekidea egin zuten, lehenengoz, San Pedro eta Santa Isabel jaien hasieran, Berrizen. Herriko dantza taldeek, beste hainbat elkartez batera, jaietan emakumearen presentzia bermatzeko ibilbideari ekin zioten 2016an. Hiru

urte geroago, jaien hasieran argazki historikoa atera dute. Amaia Uzuriaga 17 urteko berriztarra izan zen plazara lehenengoz irtendako emakumea.

Oso egun polita bizi izan zuen Uzuriagak. "Ordurako herriko hiru ermitatan dantza eginda nengoen, eta, beraz, niretzat ez zen nobedadea izan, baina ikusten zeuden askorentzat, bai", aitortu zuen. Eskerrak eman zizkien taldekideei, "normaltasunez har-tzearren".



47 ume saharar etorri dira eskualdera udan

Herririk herri - DURANGALDEA

> **ELKARTASUNA.** Rio de Oro, Lajwad eta Hamadako Izarrak elkarrean eta harrera familien babesari eskerrak, 47 ume sahararrek Durangaldean igaro zuten uda. Aurreko urtean etorritakoekin alderatuta, aurten zazpi ume gehiago egon dira eskualdean, elkartasuna indartsu dagoen seinale.



Lanbide Heziketa Zentroak, 40 urte

Herririk herri - IURRETA

> **HEZKUNTZA.** Iurretako Lanbide Heziketa Zentroak 40. urteurrena ospatu zuen. Administrazioa, automozioa, elektronikoa, metala eta kimika. Bost espezialitate horiekin eman zituen lehenengo pausoak, 1979an. 9 irakasle eta 125 ikasleekin ekin zion bideari. Gaurko eta atzoko irakasleek lagun artean ospatu zuten urteurrena.

Dali eta Manauten lanak, luxuzko aukera

Kultura - DURANGO

> **MUSEOA.** Salvador Dali artista eza-gunak 70eko hamarkadan eginiko 32 grabatu eta litografiak osatutako erakusketa zabaldu zuen, uztailean, Durangoko Arte eta Historia Museoak. Lan horiek Dalik garai hartan zituen kezka adierazten zituzten, eta irailera arte egon ziren ikusgai. "Artista heldu baten obrak ikusten dira, eta orduko garaiko kezka nagusiak ager-

tzen dira bertan: mistizismoa, heriotza eta denboraren iragana, besteak beste", azaldu zuen Antonella Montinero erakusketako komisarioak.

Bestalde, urrian, Durangon urtebetez erbesteratuta egon zen José Manaut artista valenziarraren marrazkiak, dokumentuak, oleoak eta pintorearen paleta izan ziren ikusgai, *Kartzela eta erbestea Durangon* erakusketaren eskutik. Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariaren berbetan, "obra grafiko garrantzitsua da Manautek kartzelan bildutakoa. Frankismoan kartzeletan zelan bizi zen agertzen da bertan, eta hori ikusi ahal izatea itzela da".



Durangaldeko azken bideokluba itxi dute

Akuilua - DURANGO

> **IKUS-ENTZUNEZKOAK.** Greño Durangaldeko azken bideoklubak atea itxi zituen uztail hasieran. Plataforma digitalen olatuak eta pirateriak ito egin ditu DVDak alokairuan ipintzen dituzten negozioak. Victor Manuel Morenoren familiak hiru hamarkada baino gehiago igaro ditu bideoklubean, zineari buruzko aholkuak ematen. ANBOTOk egindako elkarrizketan Morenok azaldu zuenez, "bideojokekin eta teleailekin ahalegindu ginen, baina plataformen aurrean ez dugu beste aukerarik izan".



Japoniar bat Etxebarriko sukaldean

Akuilua - ATXONDO

> **SUKALDARITZA.** Tetsuro Maeda 2011n heldu zen Euskal Herrira, eta zortzi urte dira Etxebarri Erretegiko sukaldean lanean dabilela. Axpeko borda batean bizi da emazteagaz, eta gero eta integratuago sentitzen da. "Etxebarrin eskuei begira lan egiten dugu, zer dugun eta zer egin dezakegun ikusita", adierazi zuen. Euskal Herrian, jendeak produktuaren zapo-reagaz disfrutatzen duela uste du. "Alde horretatik, hemen Japonian baino hobeto jaten da". Etorkizunari begira, bere jatetxea zabaldu gura luke.

25 urte eginda, AIDAEk jaurti du txupina

Herririk herri - ZORNOTZA

> **TXUPINAZOA.** 1994an, Zornotzako hainbat gurasok indarrak batu zituzten AIDAE elkarte sortzeko. Harrezkero, aniztasun funtzionala duten pertsonekin lan egitea eta eurei aisialdirako aukerak eskaintzea izan dute helburu. Durangaldean dagoen tankera horretako elkarerik zaharrena da, eta aurten 25 urte egin ditu.

Hori dela-eta, elkarteko kideek piztu zuten Karmen jaiei hasiera eman zien txupinazoa, uztailaren 15ean. Julia Orbe elkarteko presidentek azaldu zuenez, "urteetako lanaren errekonozimendua da. Txupinazoa elkarte ezagutzera emateko balioko digu, jende askok ez gaitu oraindino ezagutzen-eta, nahiz eta urte askoko ibilbidea dugun atzetik".

AIDAE elkartean, 30 bat gazte gaz lan egiten dute eta aisialdi inklusiboa eskaintzen diete. Egiturari begira, bazkideak dituzte eta euren laguntza eskertzekoa dela dio Orbek.



Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión



"Bigarren pelikula izan arren, alde askotatik lehenengoa dela ematen du"

Kultura - ZORNOTZA

> **ZINEMA.** Lara Izagirre zuzendari zornotzarra *Nora* bigarren film luzearen grabazioan murgildu zen abuztuan. *Un otoño sin Berlino*ko drama alde batera utzi eta komedia besarkatu du 'anti road trip' lez definitu duen euskarazko lan berri honetan.

Izagirrek ANBOTOrri adierazitakoaren arabera, asko sufritu zuen gidotia idazterakoan. "Bigarren pelikula izan den arren, alde askotatik lehenengoa dela ematen du, oso desberdina delako: nire lehenengo pelikula da euskaraz, road trip bat, komedia bat...",

adierazi zuen. Hiru astean egon ziren Zornotzan grabatzen. "Ahal dela, herriari keinu bat egitea gustatzen zait", zioen Izagirrek.

Nora pelikulan, emakumeek eraman dute "indar kreatiboaren pisua", Izagirrek orduan azaldu zuen moduan. "Hori oso garrantzitsua da, eta, zoritxarrez, oso desberdina da. Gaur egungo zinemaren errealitatean, emakumeok emakumeen istorio bat kontatuko dugu, eta horrek desberdina egiten du pelikula. Niri naturalki irteten zait horrela, baina badago berdintasunaren aldeko apustu bat ere, estrategikoki planteatuta egon behar den zerbait dela uste dudalako", esan zuen.



Etxebarri, munduko onenen artean

Erreportajea - ATXONDO

> **SUKALDARITZA.** Munduko hiru garren jatetxerik onenari saria eman ondoren, Bittor Arginzoniz sukaldariak, elkarrizketa zalea ez den arren, TTAP aldizkaria hartu zuen Axpeko Etxebarri jatetxean. "Gure sukaldaritzaren tradizioak inbidia ematen du leku askotan; hori ez dut aurkitu beste toki batzuetan", adierazi zuen.



Alex Agirrebeitia txistulariari omenaldia

Herririk herri - GARAI

> **DANTZA.** 25 urtean Garaiko dantzarien bidelagun izateagatik, Alex Agirrebeitia txistularia omendu zuten Garaiko jaietan. Gontzal Sarrigoitia dantza taldeko kideak ipini zion ohorezko txapela. "Agirrebeitia zaldibartarra da izatez, baina etxekotzat dugu. Ez du sekula ere hutsik egiten", azaldu du Sarrigoitiak.



www.ibaizabalikastola.eus




www.kurutziagaikastola.eus

50 urte!

Derrigorrezko Hezkuntza
Batxilergoa
Lanbide heziketa

· HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH
· BATXILERGOA
· HAUR HEZKUNTZAKO GOI TEKNIKARI TITULUA
· GAITASUN PROFESIONALAK:
ARRETA SOZIOSANITARIOA, UR-SOROSLE...





Gregorio Urionaguena 'Aitxu'-ri omenaldia

Herririk herri - ABADIÑO

> **OMENALDIA.** Gerediagako auzokideek omenaldi hunkigarria egin zioten Gregorio Urionaguena 'Aitxu' dantzariari, Salbadore egunean. 102 urteko abadiñarra aurrekulari legez da ezaguna. Horrez gainera, Durango-ko Andra Mari elizako dorreko erlojua, hainbat urtean geldirik egon zena, konpondu eta zaindu zuen Urionaguenak.

Ekitaldi xume baten bitartez omendu zuten 'Aitxu', eta Gerediagako juntetxea lepo bete zen. Unai Iturriagak haren bizitzan oinarrituriko bertsoak abestu zizkion. Gainera, auzoko dantzariak dantza egin zioten. Txalo zaparrada batez erantzun zien publikoak Urionaguenaren berbei: "Sei urtegez hasi eta ahal izan dudana guztietan etorri naiz Salbadore egunean. Aurrekua ahal izan dudana guztietan egin dut. Baina, orain, zahartzaroan, ezin egin!". Urionaguena 1917an jaio zen, Lebarioko Ola baserrian, eta dantza izan da bere pasioa. Gerra zibila bizi izan zuen eta 20 urtegez Bizkargiko erresistentziara joan zen, frontera.



Salaketak etxeetan lapurretan egiteagatik

Herririk herri - ABADIÑO

> **SALAKETAK.** Uztailean eta abuztuan 16 salaketa ipini zituzten Durangaldean, etxebizitzetan lapurretan egiteagatik edo lapurretan egiten ahalegintzeagatik. Durangon, Zornotzan, Abadiñon, Iurretan eta Zaldibarren ipini zituzten salaketak.

Abadiñon, adibidez, atarrietan "itsasgarrari arrastoak" agertu ziren, Eusko Jaur-laritzako Segurtasun Sailak ANBOTOr jakinarazi zionez. Atea eta atearen markoa itsasgarrari hariagaz lotzen zuten lapurrek, etxean inor ez zegoela baieztatzeko. Gehienetan, "bitxiak eta dirua" eraman zuten. Batzuetan, ordenagailu eraman-garriak, telebistak eta etxetresna elektrikoak ere bai. Ez zen bizilagunen kontrako erasorik gertatu.



Alexia Gomez, Miss Real Model lehiaketan

Akuihua - DURANGO

> **MODA.** Alexia Gomez Zuazuak Miss Real Model edertasun lehiaketan parte hartuko zuela iragarri zuen. Edertasun lehiaketako ohiko ereduak zalantzan ipintzen duen ekimena da hori, eta burubelarra jardun zuen prestaketa lanetan. Urtebete baino gehiago da 'curvy' modelo delako: "Pasarelan zelan desfilatu behar den ikasteko bideoak ikusten ibili naiz".



Igor Urienek etapa berri bati ekin dio

Kirola - ABADIÑO

> **AUTOMOBILISMOA.** Automobilismoaren promesa izateak zekarren zama bizkarreratzea egokitu zitzaion Igor Urieni. 3 Formulan lehiatu zen. Amaitu zen etapa hura, eta gaur egun beste modu batera bizi du autoen mundua. Gazte abadiñarrak bolantean gozatzea du helburu, zainetan daraman irabazteko grinari uko egin barik. Zenbait diziplina eta auto probatzen dabil, besteen aginduetara batzuetan, eta bere proiektu propioak martxan jarrita besteetan. Industria arloko ingeneritza mekaniko ikasketak amaitu berrikan, ez du bere benetako pasioa alde batera uzteko inongo asmorik.



Atxondo, aurrera begira



Amankomunazgoko agintaritza EH Bilduren eskutik EAJrenera igaro da

Herririk herri - DURANGALDEA

> **INBESTIDURA.** Udal hauteskundeen ondoren, EAJk Amankomunazgoa berreskuratu du lau urtez EH Biduren eskuetan egon eta gero. Inbestidurako bozketan, Mireia Elkoroiribek (EAJ) 14 boto jaso zituen eta Ane Abanzabalegik (EH Bildu) 13 boto. Elkoroiribek

bere alderdiko kideen eta Abadiñoako Independenteen botoagaz eskuratu zuen presidentetza.

Abanzabalegik zorionak eman zizkion Elkoroiriberi, eta ekitaldiaren amaieran gauza bera egin zuen orain arte presidente izandako Aitor Lope-

zek (EH Bildu) ere. Hemendik aurrerako lan ildoan artean, Elkoroiribek Durangaldearen izaera industrial nabarmendu zuen: "Eskualdeak duen potentziala industrial aprobetxatu behar dugu kalitatezko enplegua eta gazteentzako enplegua sortzeko". Hain zuzen ere, horretan ipini zuen arreta: "Horixe izango da helburu nagusietariko bat. Langabezia tasa erlatiboki baxua da Durangaldean, baina egoera horretan dauden 4.375 herritarrentzat lan egingo dugu". Bestalde, Abanzabalegik egin zuen lez, airearen kalitateagatik kezka agertu zuen, eta horretan ere behar egingo dutela aurreratu zuen.



"Haurdun zaude, baina ez zaude gaixorik"

Elkarrizketa - DURANGO

> **GIZARTEA.** Etxean erditzearen gaia mahaigaineratu guran, Izarne Totorika mediku durangarrak bere esperientzia kontatu zuen ANBOTOn. "Haurdun zaude, baina ez zaude gaixorik. Zure gorputzak badaki zer egin behar duen eta zure umeak badaki zelan jaio", azaldu zuen Donostiako ospitalean lan egiten duen durangarrak.



Garaiko pilotalekuaren eraberritzea, aurrera

Herririk herri - GARAI

> **AZPIEGITURAK.** Garaiko pilotalekua eraberritzeko azken faseko lanei ekin zieten irailean. Lanak amaitzean, kirola egiteko eremu bat eskainiko du frontoi berrituak, baina, horretatik aparte, kultura jarduerak ere ahalbidetuko dituen egitura bat izatea dute helburu. Musika kontzertuak, herri bazkariak, antzezlanak, dantzak eta pilota partiduak aterpetu gura lituzke frontoiak etorkizunean, Erramun Osa alkateak azaldu zuenez. Lanek duten beste helburu nagusi bat da pilotalekua urte osoan zehar erabilgarri izatea. Horretarako, frontoia hotzetik eta hezetasunetik babesteko neurriak hartu dituzte eta argiteria aldatu dute.

Frontaura, Durangoko udaltzainburu berria

Herririk herri - DURANGO

> **UDALTZAINGOA.** Amaia Frontaura da Durangoko udaltzainburu berria. 1978an jaiotako durangarrak lehiaketa publiko baten bitartez lortu zuen postua. Irailean, Frontauraren aurkezpena egin zuten eta Durangoko udaltzainburu berriak argi azaldu zuen zein lan ildo garatuko duen bere lantaldea gidatzeko. "Agenteak kalean ikustea eta herritarrengandik gertu egotea gura dut. Horixe da nire helburu nagusia", esan zuen.



Mugikak agur esan dio AEKren lehen lerroari

Erreportajea - ELORRIO

> **EUSKALGINTZA.** Mertxe Mugikak AEKko koordinatzaile nagusia izateari utzi zion irailean. 13 urte eman ditu zeregin horretan. "Denbora honetan gizartean aldaketak gertatu direla ikusi dut, eta AEK-k horretara egokitzen jakin du. Euskal Herria euskalduntzen segitzuen dugu, eta ikasle zein zerbitzuen kopuruak goranzko joera izan du 13 urte hauetan", baloratu zuen Mugikak urte horietako ibilbidea.



Lopez de La Calle, kartzela zigorrik barik

Herririk herri - OTXANDIO

> **EPAIKETA.** 47 euskal herritarren kontrako makroepaiketa hasi, eta berehala amaituzen, aldean arteko akordio batez. Auzipetuak banaka aritu ziren deklaratzeko, eta leporatzen zituzten delituak onartu zituzten. Orduan, fiskalak beste eskaera bat egin zuen. Urtebete eta sei hilabetetik bi urtera arteko zigorra ezarri zieten 45 epaituri, eta talde horretan zegoen Egoitz Lopez de La Calle otxandierra. Ondorioz, kartzela ekidin zuen. Horren aurretik, 12 urteko kartzela zigorra eskatzen zuten berarentzat.

Lau protesi Ceutara, beharrezana zutenentzat

Herririk herri - ABADIÑO

> **OSASUNA.** Itziar Larrinaga errefuxiatuekin lan egiten duen Hemendik Harantz elkartearen kidea da. Ceutan zazpi lagun ezkutaturik zituen auto batek istripua izan eta haietako bati hanka moztu ziotela jakitean, Emi Mata durangarraz gogoratu zen. Matak behar ez zituen lau protesi zituen etxean. Hainbat elkarteren laguntzagaz, lau protesiak Ceutara bidali zituzten, istripua izan zuenarentzat zein haien beharrezana zuten beste hirurentzat.



ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA

Tel.: 946 827 016

www.zaldibar.eus



Zaldibar
Elizateko Udala

Udal gobernu berriak Las hermanas eraikinera lekualdatu gura du Zaldibarko kultur etxearen proiektua, Sanjoangoan egin beharrean

▣ **Azpiegitura** - ZALDIBAR

> **KULTURA.** Kultur etxerik ez egotea auzi historikoa bihurtu da Zaldibarren. Izan ere, hainbat legegintzaldi daramatzate irtenbidea topatu guran, baina adostasunera heldu barik. Aurreko legegintzaldian, gobernuan zegoela, EH Bilduk kultur etxearen proiektua bideratu zuen. Herritarrekin egindako prozesu parte-hartzaitetik kultur etxea egiteko gune bat erabaki zuten: Sanjoangoa baserria.

Baina legegintzaldi honetan EAJ eta PSE daude gobernu taldean, eta

beste asmo batzuk dituztela salatu zuen alderdi subiranistak iraileko ple-noan. Kultur etxea, Sanjoangoa base-rrian barik, Las hermanas eraikinean egitea negoziatzen dabiltzala Osakidetzagaz esan zuten: "Guretzat ardu-ragabekeria da proiektuaren fase honetan gelditu uztea". Alderdi subiranistari "salagarria" iruditzen zaio proiektua geratzea. "Azken urteetan ez dute ezer ere esan, eta orain, gober-nura heldu berritan, proiektu hau gel-ditzea eta bestelako aldaketak propo-

satzea ez dugu egoki ikusten", adierazi zuten EH Bildutik. "Aukerarik onena hobetsiko dugu", erantzun zuten udal gobernutik. PSE, bere aldetik, pozik agertu zen aldaketagaz.

Las hermanas eraikina herriaren erdigunean dago, eta Sanjoangoa, os-tera, Alde Zaharrean. Kultur etxea Sanjoangoan eginda, EH Bilduren udal gobernuaren asmoa herrigunea zabaltzea zen: "Alde Zaharra erabe-rritzeko pauso bat izango litzateke", adierazi zuten.



"Talde polita osatu dugu Indarpak-en"

▣ **Kirola** - DURANGALDEA

> **TRIATLOA.** Orain hiru urte, Mainer Ramos triatloien munduan murgildu zen, aurretik batere esperientziarik izan barik. Abentura exigente horretan, bidelagun izan ditu Indarpak taldea eta Gorka Bizkarra irakaslea. Irailean bere lehenengo Ironman erdia amaitu zuen Ramosek. Gustura dabil Indarpak-en. "Talde polita" osatu dutela uste du.



Jon Aldekoa-Otalora Zornotza taldera batu da

▣ **Kirola** - ZORNOTZA

> **SASKIBALOA.** Tabirakon hezi eta, besteak beste, Juventud eta Bilbao Basketetik igaro eta gero, aurtien Zornotza Saskibaloia Taldean lur hartu du Jon Aldekoa-Otalora 19 urteko gazteak. "Asko dut ikasteko, baina gogotsu nago", adierazi zuen.



Olatz Aizpitarte Goierri Kopako podiumean

▣ **Kirola** - ELORRIO

> **MENDI LASTERKETAK.** Olatz Aizpitarte elorriarra orain urte bi hasi zen mendian korrika egiten. Denbora gutxian asko hobetu du eta onenen artean dabil. Horren adibide da IV. Goierriko Kopa trailean, zazpi lasterketak osatzen duten proban, aurtien lortu duen hirugarren postua. "Ez nuen horrelakorik itxaroten. Ondo pasatze-ko hasi nintzen Kopan, baina apurka aurrerantz nindoala ikusita, osorik egitea erabaki nuen", azaldu zuen. Ez

zuen ibilbide erraza izan. Hasierako probak "oso ondo" irten zitzaizkion eta sailkapeneko lider ipini zen. Baina hurrengo lasterketa jokatu aurretik jausi egin zen: "Belaunean zauria egin eta bederatzi puntu eman behar izan zizkidaten", gogoratu zuen. Hurrengo lasterketa horretara entrenatu barik eta puntuak kendu berritan heldu zen. "Asko sufritu nuen", esan zuen. Hurrengo lasterketetan ere ez zuen ondo pasatu, bere buruari sartutako presioagatik. Hala ere, azkenean oztopo guztiei aurre egin eta Kopako podiumera igotzea lortu zuen. "Beti gustatu izan zait korrika egitea eta oso pozik nago emaitzagaz", adierazi zuen.

Mokcer's taldearen lan berria, osorik euskaraz

Kultura - DURANGO

> **MUSIKA.** Mocker's taldeak *Oreka Ahula* diskoa argitaratu zuen irailan. Rocka ardatz hartuta, doinu progresiboetara eta psikodelikoetara jo dute oraingo honetan. Ia urtebeteko lan gogorraren fruitua da lan berri hau. Gainera, ingelesetik euskarara jauzia eman dute. Hasieran, "disco erdi euskaraz eta beste erdia ingelesez" ateratzea zen asmoa, Jon Garcia baxu-jotzailearen esanetan, baina euren ekoizle eta soinu teknikariak animatuta, disko osoa euskaraz argitaratu zuten. "Disco kontzeptuala da, eta, maila emateko, euskaraz hobeto moldatuko ginela uste genuelako aldatu dugu. Euskaraz abesten duten taldeen aukera sorta zabaldu egin dela uste dut, eta horrek ere laguntzen du. Gaur egun, denerik entzun daiteke euskaraz: rocka, trapa, folka...", adierazi zuen Ritxi Blanco gitarristak. Abes-tietako letrak "barrura begirakoak" dira. "Bizitzak duen oreka-desoreka horretan ipini dugu arreta", esan zuen Blancok. Durangoko Platerueneko zuzeneko bategaz aurkeztu zuten lan berria jendaurrean.

ren ekoizle eta soinu teknikariak animatuta, disko osoa euskaraz argitaratu zuten. "Disco kontzeptuala da, eta, maila emateko, euskaraz hobeto moldatuko ginela uste genuelako aldatu dugu. Euskaraz abesten duten taldeen aukera sorta zabaldu egin dela uste dut, eta horrek ere laguntzen du. Gaur egun, denerik entzun daiteke euskaraz: rocka, trapa, folka...", adierazi zuen Ritxi Blanco gitarristak. Abes-tietako letrak "barrura begirakoak" dira. "Bizitzak duen oreka-desoreka horretan ipini dugu arreta", esan zuen Blancok. Durangoko Platerueneko zuzeneko bategaz aurkeztu zuten lan berria jendaurrean.



Atxondoko jolaslekua, botatzeko arriskuan

Herririk herri - ATXONDO

> **GIZARTEA.** Guraso talde batek jolasleku bat egin zuen umeentzat Ziarreta auzoaren atzealdean, baina udalak irailan iragarri zuen botatzeko asmoa zuela, ez dituelako segurtasun neurriak betetzen. Alaine Garitagotia eta Naiara Gongeta gurasoak ez daude ados erabaki horregaz. "Profesional batzuekin egon gara eta, diotenez, jolasgunea ez da horrenbeste aldatu behar legean sartzeko. Beraz, aldatu ditzagun aldatu beharrekoak. Jolasgunea moldatzeko prest gaude, baina ez botatzeko", adierazi zuten.



'Madre' filmean ekoizle aritu da Ander Sagardoy

Kultura - DURANGO

> **ZINEMA.** Oscar sarietan nominatuta egon zen izen bereko film laburrean oinarrituta dago *Madre* filma, eta Ander Sagardoy durangarra ekoizle lanetan aritu da bertan. "Film bat egitea prozesu luze eta konplexua da, eta ekoizlea da denbora tarte horretan sortu daitezkeen arazo eta ezustekoen erantzule nagusia", laburbildu zuen bere lana Sagardoyk. Hainbat asmo ditu datorren urterako. "*La maldición del guapo* komedia estreinatuko dugu eta, dena ondo badoa, hiru film luzeren grabazioak hasiko ditugu", esan zuen.



Tokikoa kudeatzen dugu, globalean pentsatzen dugu

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak planeta babesteko eta pertsonen ongizatea bermatzeko lan egiten du, **Garapen Iraunkorreko Helburuen** mandatu orokorrari jarraiki, bereziki, seigarrenari: guztiontzako ur garbia eta saneamendua.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
 Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus





Mangamore jaialdiak 14.000 lagun batu ditu

Kultura - ZORNOTZA

> **MANGA.** Animegaz eta Japoniako kulturagaz lotutako hainbat ekintza izan dira aurten ere Mangamore jaialdiaren barruan. Guztira, 14.000 lagunetik gora batu zituen Zornotzako jaialdiak. Youtube kanalean lau milioi jarraitzailetik gora dituen Folagor youtuberra izan zen gonbidatuetariko bat, eta 1.000 lagunetik gora batu ziren bere sinadura jaso edo beragaz argazki bat ateratzeko. Bideo-jokoen lehiaketa, Gokan Bilbaoren eskutik egindako sushi dastaketa eta umeentzat antolatutako jarduerak ere arrakastatsuek izan ziren.

Jaietan, euskararen presentzia indartzeko beharrezana bistaratu du Berbaroren neurketak

Erreportajea - DURANGO

> **EUSKARA.** Durangoko San Fausto jaietako ekimenetan euskarak izandako presentziaren neurketa egin zuen Berbaro elkarteak. Neurtu ziren 91 ekintzetatik 37 erdaraz izan ziren, 32 euskaraz, eta 22 ele bitan. Umeei bideratutako ekintzen kasuan, %50


erdaraz izan ziren, %29 euskaraz, eta %23 ele bitan. "Argazki hau atera dugu datorren urteko edo hurrengo urteetako jaiei begira ahalik eta euskarazko programaziorik zabalena egiteko, datuok hobetze aldera", azaldu zuen Berbaroko Markel Sanchezek. Datu

hauek "iraultzeko" unea dela dio. Kasu askotan, egoerak konponbide erraza duela gogoratu zuten: aurkezle edo dinamizatzaile euskaldunak eskatzea, itzulpen zerbitzuak eskaintzea, euskal musika eskaintzea barraka edo ekintzetan ipintzeko, eta abar.

Amurizak irabazi du Manuel Lekuona saria

Kultura - BERRIZ

> **SARIA.** Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria Xabier Amuriza bertsolari eta idazleak irabazi zuela iragarri zuten urrian. "Bertsolaritza modernoaren erreferente argia da, eta alor askotan aurrendaria izan da", arrazoitu zuen epaimahaiak. Orokorrean, Amurizak bertsolaritzari eta euskal kulturari egindako ekarpen "ikaragarria" nabarmendu zuten. "Bertsolaritzatik harago, lan ibilbide emankorra izan du literatura eta musika alorretan: eleberriak, azterlanak, diskoak...".



Kataluniari elkartasun mezuak Durangaldetik

Herririk herri - DURANGALDEA

> **ELKARRETARATZEAK.** Kataluniako erreferendumaren epaiketean, Espainiako Auzitegi Gorenak "sedizio delitua" egotzi zien bederatzi politikariri, eta "desobediencia" egitea beste hiruri. Durangaldean hainbat elkarretaratze egin zituzten Kataluniari elkartasuna adierazteko. Durango, Abadiño, Iurreta, Zaldibar, Zornotza, Elorrio, Berriz, Mallabia eta Atxondo izan ziren mobilizatu ziren herriak. Sindikatuek ere hainbat deialdi egin zituzten.



Bidea urratu zuten eskualdeko futbolariak

Kirola - DURANGALDEA

> **FUTBOLA.** 60ko hamarkadaren amaieran, emakume batzuk lehenengo urratsak ematen hasi ziren futboleantzean zeuden harresiak eraisteko.

Miren Zamakona durangarra, Kontxi Egiarte zornotzarra eta Idoia Larrañaga elorriarra aitzindariak izan ziren emakumeen futboleantzean, eta Durangoko Kemen, Zornotzako Iraultza eta Elorrioko Besaide taldeetan jokatu zuten, hurrenez hurren. "Orduan ez ginen kontziente, baina moldeak apurtu genituen", azaldu zuten.

Sokamuturraren kontra manifestatu dira

Erreportajea - DURANGO

> **SOKAMUTURRA.** Durangaldea Antiespezista taldeak manifestazio-ira deitu zuen Durangoko jaietan. Sokamuturra ekimena bertan behera

uzteko eskatzea izan zen deialdiaren helburua. "Kontua ez da animaliak jotzea edo txarto tratatzea bakarrik. Ipini beharreko muga horren aurretik dagoela uste dugu. Animaliak gure helburuetarako erabiltzen ditugu eta hori txarto dago. Ez dago besterik", azaldu zuten Durangaldea Antiespezista taldeko Gorka Unzaluk eta Silvia del Amok.



Abadiñoako bost pilotari bote luzeko txapeladun

Kirola - ABADIÑO

> **PILOTA.** Hirugarren urtez jarraian, Bizkaia taldeak Euskal Herriko Bote Luzeko Txapelketa irabazi zuen. Beste

batzuen artean, Abadiñoako bost pilotari izan ziren talde horretan: Ander Antxia, Egoitz Amantegi, Asier Aspuru, Aitor Arabiourrutia eta Jon Arana. Berrizko pilotaleku irekian jokatu zuten finala, Gipuzkoaren kontra. Hasiera parekatu baten ondoren, azkenean, 7-3 irabazi zuten.



MAÑARIKO UDALA

946 818 998

www.manaria.org



"Durangoko eta Zornotzako emakumeen kartzelak bereziki gogorak izan ziren"

Erreportajea - ZORNOTZA

> **LIBURUA.** Zornotzako El Carmelo ikastetxea dagoen eraikina emakumeen kartzela izan zen 1939 eta 1947. urteen artean. Datu gutxi ezagutzen dira presondegiaren inguruan. Ascensión Badiola historialariak *Individuas peligrosas* liburuan jaso ditu dokumentazio eta lekukotza guztiak.

Horrela, ahanzturatik atera du Zornotzako kartzela. "Gauza gutxi dakizkigu. Gerra zibila trauma handia izan zen, eta izaten jarraitzen du. Bere sasoiaren, ez zuten honetaz berba egin, ez alde batekoek ez bestekoek. Ni ikeritzen hasi nintzen gehiago jakin gura nuelako, egia jakin gura nuelako",

adierazi zuen. Ez dago argi zenbat emakume igaro ziren Zornotzako kartzelatik. Badiolak 1.234 izen batu ditu. Liburuan, besteak beste, preso egon ziren emakumeen eguneroko bizitza zelakoa zen kontatzen du. "Kartzela guztiek arautegi bera zuten. Goizetan, jaiki eta gero, ur beroa ematen zieten

gosaltzeko. Ondoren, mezak eta errezuak egiten zituzten. Kartzelako zirkuituan denbora bat zeramateni, tailerretan lan egiteko baimena ematen zieten. Zornotzan eta estatuko iparraldeko kartzeletan, josteko tailerrak nagusitu ziren", azaldu zuen. Badiolaren ustez, Zornotzako eta Durangoko kartzelak "bereziki gogorak" izan ziren, kartzeletako zuzendaritzak "ahaztuta eta utzita" izan zituelako. "Orokorrean hobekuntzaren bat egiten bazuten ere, kartzela bi hauek ez ziren aipatu ere egiten", gaineratu zuen historialariak. Hala ere, Zornotzako beste kartzela batzuk baino askoz ere denbora gehiago egon zen zabalik.

Frades 15. munduko Ironman txapelketan

Kirola - IURRETA

> **IRONMANA.** Denboraldi osoan egindako lanak bere fruituak eman zizkion Gurutze Fradesi. Urrian, Hawaiiako Ironmanen munduko txapelketan hamabosgarren heldu zen helmugara. 3.800 metro egin zituen igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika. Honako hau

izan zen bere denbora: 9:16:50. "Munduko txapelketan edozein posturen-gatik borroka egitea oso zaila da, baina egunero ahalegin bete egiten dugu onenen artean egoteko", adierazi zuen atleta iurretarrak. Hawaiiako ez da izan Fradesek aurten lortu duen postu azpimarragarri bakarra. Maiatzean zortzigarren tokian geratu zen Pontevedran (Galizia) lehiatu zen munduko triatloi txapelketan. Bizikletan 10. tokian zegoen eta korrika lehiakide bi aurreratu zituen.



"Diskoa Nebrashkaren benetako espresioa da"

Kultura - DURANGO

> **MUSIKA.** Durangoko Nebrashka taldeak *Lawak* izeneko lan berria kale-ratu zuen. "Aurreko diskoan igartzen zen Yoko Outekiko lotura hori. Oraingoan, lortu dugu Nebrashkaren benetako espresioa izatea. Abesti gehiago ditugu, baina, azken finean, lan hau gure aurkezpena izatea gure genuen", azaldu zuten taldekideek.



Euskadi Fundazioak Bizkarrak fitxatu du

Kirola - MAÑARIA

> **TXIRRINDULARITZA.** Euskadi Muriasko taldeak ez du aurrera jarraituko hurrengo denboraldian. Ondorioz, Mikel Bizkarrak talde berria aurkitu behar izan du eta Euskadi Fundazioa taldearen eskaintza onartu du. "Bizitzak aurrera jarraitzen du eta niretzat aukera polita da Euskadi Fundazioagaz aritzea", azaldu zuen.



Bost hileko grebaren ondoren, akordioa

Erreportajea - ELORRIO

> LAN HITZARMENA. Elorrioko udal eraikinetako langileek bost hilabete eman zituzten greban lan baldintza hobek izateko asmoz. Urrian, hainbeste itxarondako akor-

dioa sinatu zuten Elorrioko Udalak eta sindikatuek. "Lan baldintza duinen defentsan borrokan ibili gara, eta, azkenean, oso akordio ona lortu dugu", baloratu zuen akordioa ELA sindikatutik. Udalak ere balorazio positiboa egin zuen. "Bidea gogorra izan da denontzat, baina aurkitu duguz soluzioa eta ahal izan den akordio-rik onena lortu dugu", azaldu zuten.

Gaztelu-Urrutiaren filmak, harrera ona

Kultura - ABADIÑO

> ZINEMA. Galder Gaztelu-Urrutia abadiñarra urte askoan dabil zinemagintzan, eta aurten bere lehenengo film luzea estreinatu du zuzendari lez: *The Platform*. Torontoko nazioarteko film festibalean saritu egin dute eta oso harrera ona izan du. "Jaialdi hartan nengoela, uste nuen ez nintzela

proiektzio osoan egongo, hainbat bider ikusi dudalako pelikula osorik, baina lehenengo minutuetan publikoak zelan erreakzionatu zuen ikusita, geratu egin nintzen. Harrera paregabea eduki zuen", gogoratu zuen zuzendari abadiñarrak. Beste jaialdi batzuetan ere nabarmendu dute. "The Platform" egungo egoerari lotuta dago, baina berdin ulertuko zen orain hogeit urte. Baita hogeit urte barru ere", azaldu zuen filmaren inguruan.



Presoen eskubideak aldarrikatu dituzte

Herririk herri - DURANGO

> GIZA ESKUBIDEAK. Urriaren 19an dozenaka lagun batu ziren Andra Mari aurrean deitutako elkarretara-

tzean, presoen eskubideak aldarrikatzeko. Sarek antolatuta, larri gaixodauden presoak etxeratzea eskatzeko egin zuten elkarretaratzea Durangon. Elkarretaratzean jakitera eman zutenez, gaur egun 21 dira larri gaixorik dauden euskal presoak, tartean Gorka Fraile preso durangarra.

Obrak martxan!
Azken 3 ETXEBIZITZAK SALGAI!
Bigarren fasea hastear, deitu eta apuntatu!



- TERRAZA HANDIAK
- ESPAZIO ZABALAK
- INTERNETERAKO DOAKO KONEXIOA
- HORMA ARMAIRUAK
- ENERGIA ERAGINKORTASUN HANDIKO ETXEBIZITZAK

ERTZAINZAREN BIRIBILGUNEAN, KURUTZIAGA ONDOAN
94 681 44 95 / 650 397 007



Durangoko geltokiari buruzko galdeketa, Madrilgo Gobernuaren ebazpenaren zain

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **GELTOKIA.** Geltokiaren inguruko galdeketa soka luzea duen gaia da, eta azaroan eman zuten lehenengo pauso garrantzitsua Durangoko udalbatzan. Pilotak Madrilgo teitatura egin zuen salto, Espainiako Estatuko Ministroen Kontseilura, hain zuzen ere. Tren geltokiaren gaineko galdeketa Durangon aktibatu eta gero, prozedurak han izango

du segida. Aho batez onartu zuten tren geltoki zaharrari buruzko galdeketa egiteko baimena Madrilgo gobernuari eskatzea, eta, beraz, kontseiluak erabakiko du argi berdea eman proiektuari ala argi gorria. Baimena eskatzeko erabakia aho batez onartu zen unean, txaloz hartu zuten berria udalbatzan egon ziren herritarrek. Aritz Bravo EH Bil-

duko zinegotziaren ustez, erabaki "garrantzitsu bezain historikoa" izan zen: "Orain hamarkada bat baino atzeragoko testuinguruan diseinatutako proiektua makroproiektu zentzugabea da gaur egun, eta proiektuaren zentzu hori izango da aurrerantzean eztabaidatuko dena. EAJko zinegotzi Mireia Elkoroiribek "herritarren parte-hartzea" defen-

datu zutela adierazi zuen bozkaketa egin eta gero. Jorge Varela Herriaren Eskubidea taldeko kideak ere "poztasunez" hartu zuen udalbatzaren erabakia, eta PSE-EE taldeko Jessica Ruizek adierazi zuen ziur daudela "Gobernuak baimenduko duela", nahiz eta gogorazi galdeketa "ez dela loteslea".

Ruizek esandako moduan, galdera ez litzateke loteslea izango, baina, baiezko kasuan, prozedura Durangora itzuli eta galdeketa buruzko hurrengo pausoei bertan izango lukete segida. Denbora luzez iraun duen eztabaidaren amaiera gertu dela dirudi, hiru hilabete barru. Orain udalbatza Madrilgo erantzunaren zain dago.

Bizkaiko metalaren greba, bertan behera

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **GREBA.** Negoziazio batzar bi egin eta gero, metalgintzako sindikatuen gehiengoak aurrekordioa sinatu zuen: LABek, CCOO-k eta UGTk adostasuna lortu zuten Bizkaiko FVEM patronalagaz. Aurrekordioa akordio izatera pasatuko balitz, Bizkaiko metalgintzaren sektoreak hitzarmen berria izango luke 2021era arte. Eta ez hori bakarrik; izaera orokorreko hitzarmena litzateke, enpresa guztietara hedatuko dena, orain arteko hitzarmen partziala deseginda.



2018an, 83 emakumek jaso zuten arreta

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **INDARKERIA.** 83 emakumek jaso zuten arreta indarkeria jasateagatik Abadiñon, Berrizen, Durangon eta Elorri. Durangaldean hainbat instituzio eta elkarte aritzen dira elkarlanean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduerak eta koordinazio-lanetarako II. Protokoloan. 2017ko datuekin alderatuta, zazpi pertsona gehiagok jaso behar izan zuten arreta. Hala ere, hainbat arrazoiengatik biktima asko estatistiketatik kanpo gelditzen dira.



Durangoko Kulturalak 100 urte egin ditu

▣ **Erreportajea** - DURANGO

> **FUTBOLA.** Futbol taldearen mendeurren ospakizuna egin zuten azaroan. Historia luze horretan, Kulturala hiru bider egon da Bigarren B Mailan.

Garain ziklo-kros proba egin dute, lehenengoz

Kirola - GARAI

> **ZIKLO-KROSA.** Urte askoan antolatzea amestu izan duen proba errealitate bihurtu zuen Ander Azpitartek azaroan, Garai Triatloi Taldekoen lanari esker. Herritarrek lehenengo ziklo-kros lasterketaz gozatu zuten. Gizonezkoetan Astana taldeko Gorka Izagirre txirrindulariak irabazi zuen, Jon Munitxa abadiñarraren aurretik. Emakumezkoetan, Paula Suarezek (Laboral Kutxa - Euskadi Fundazioa) ez zuen aurkaririk izan.



AHTaren lanak hasi dituzte Atxondon

Herririk herri - ATXONDO

> **INGURUMENA.** AHTaren gaiak zeresan handia eman du Atxondon. Proiektua 12 bat urtean geldituta egon eta gero, badirudi hasi direla lanekin. Atxondoko AHTrik Ez plataformako kideek ANBOTOrri jakitera eman ziotenez, azaroan hasi ziren lanak egiten Apatamonasterion. "Kapela baserriaren inguruan langileak dabilta. Sasiak kentzen eta beste zenbait lan egiten hasi dira. Etorriko denaren hasiera baino ez da hau", salatu zuten. "Ofizialki ez daki-gu lanak egiten hasi diren", esan zuen Xabier Azkarate Atxondoko alkateak.



Elkartasunez, bizi berri bat eraikiz

Erreportajea - ZORNOTZA

> **ERREFUXIATUAK.** Euren jaioterritik alde egitera behartutako hiru familiak bat egin zuten Zornotzan, bertan bizi dira eta. Aurrerantzean, bertan hasi gura dute bizimodu berri bat eraikitzen. Aterpea Harrera taldearen eskutik elkartu ziren. Zornotzako herri mugimenduak Luis Urrengoetxea kalean okupatuta dituen etxebizitza bi ipini zituen familien eskura, eta haiei behar duten guztian laguntzeko ahaleginean dabil.



GARAIKO UDALA

Tel.: 946 816 393
www.garai-udala.eus





"Jardunaldi Feministak izugarriak izan dira eta esker oneko berbak baino ez ditugu"

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **FEMINISMOA.** Durango izan zen epizentro, erdigune. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren hitzordurik nagusia aterpetu zuen Durangok, azaroaren hasieran egindako Jardunaldi Feministetan. Eta bertan landutakoak segida izango du aurrerantzean ere, Durangon adostutako lan ildoak Euskal Herri osora zabalduko dira eta. Durangoko Bilgune Feministako kideak bertan izan ziren,

eta, azaldu zuten, "izugarria izan zen" hiru egunean Durangon bizitakoa. Jardunaldietako "inurri lan handia, eduki politiko zabala eta antolakuntza maila altua" nabarmendu zituzten.

Durangoko Jardunaldi Feministen antolatzaileek "haustura eta eraldaketa" aldarrikatu zituzten "eredu antisozial eta antidemokratikoari" aurre egiteko. "Eguneroko ogia dira

emakumeak pobrezia kondentzen dituzten politika neoliberalak, indarkeria matxistaren gorakada, arrazismo instituzionala eta lurraren esplotazioa. Emakumeek, lehenengo pertsonanbizidutesistemazapaltzailea", zioten. Balorazio hori bere egiteaz gainera, instituzio batzuek feminismoarekiko duten "zurikeria" ere kritikatu zuen Durangoko Bilgune Feministak.



Ikur frankistak agertu dira Abadiñon

▣ **Herririk herri** - ABADIÑO

> **FRANKISMOA.** Gerra zibilaren sasoiko panteoi bat dago Abadiñoko hilerrian, eta bertako harlauzetako batean ikur frankista bat dago. Ikurra kenduko duela baieztatu zuen Mikel Garaizabal alkateak, eta erabaki horrek bat egingo du udalak aspaldi hartu zuen ildoagaz. 1979ko bilkura batean, udalak sinbologia frankistak herritik erretiratzea erabaki zuen.



Tolotoko obrek eragina izango dute Elorriren

▣ **Herririk herri** - ELORRIO

> **HERRIGINTZA.** Idoia Buruaga alkateak eta Maria Herrero alkateordeak jakitera eman zuten, Elorrio goitik behera eraldatuko duten lanak hasi zituzten. "Toloto erreka berbidertzeak Elorrio guztiz aldatuko du, eta herriak asko irabaziko du. Pauso garrantzitsua izango da amestutako Elorrio lortzeko", esan zuen Buruagak.



Tel.: 946 813 548
www.izurtza.net



Azokaren inpaktu ekonomikoa 5,4 milioi eurokoa izan da, ikerketa baten arabera

Herririk herri - DURANGALDEA

> **DURANGOKO AZOKA.** Urteko balorazioa egiteagaz batera, Durango Azokak egindako ekarpen ekonomikoaren inguruko datuak kaleratu zituen Gerediaga Elkarteak, Siadeco ikerketa taldeagaz batera.

Ikerketak aditzera eman duenez, Durango Azokaren eragin ekonomikoa 5.848.000 eurokoa izan zen. Bi-

sitariak 1.737.000 euro gastatu zituzten Landako Gunean: %60 liburutari eta %30 diskotan. Batez beste, erosle bakoitzak 49 euro gastatu zituen Landako Guneako standetan. Azokatik kanpora, Durango ostalaritza, merkataritza eta zerbitzuetan, 28 euro gastatu zituzten batez beste. Aipatu dutenez, bisitarien erdiek

Gabonetarako erosketak egiteko aprobetxatzen dute Durango Azoka. Gerediaga elkarteak datu hauen garrantzia azpimarratu du. Eragin ekonomikoari dagokionez, Gerediaga inpaktu ekonomikoa nabarmendu du, 655.000 euroko aurrekontua duen ekimen batek "halako bederati" eragiten duelako.



Kezka Elorriko Iguria auzoko istripuengatik

Herririk herri - ELORRIO

> **ISTRIPUAK.** N-636 errepidean, Elorriko saihebidetara amaitzen den bigarren inguruan, hainbat istripu larri gertatu ziren. Azken azaroaren 25ean gertatu zen, eta lagun bat hil zen bertan. Azken istripu horren ondorioz, Iguriako auzotarrak protestan irten ziren errepidera, eta abenduan, elkarretaratze bat eginenez, kilometro bateko tarte horri konponbidea emateko eskatu zioten udalari. "Urteak pasatu dira Iguria auzoa eta herrigunea oinez bide batez lotzeko eskatu geniola udalari, eta berriro ere eskari horregaz gatoz", adierazi du Augusto Uriarte Iguriako auzo alkateak.

Goitako auzokideak trafikoaren kexu dira

Herririk herri - MALLABIA

> **TRAFIKOA.** Urte luzez, Mallabiko Goita auzoko bizilagunek kexaka jardun dute auzoko errepide nagusitik igarotzen diren gehiegizko ibilgailuak direla-eta. "Asko" igarotzen direla salatu zuten. Auto, kamioi zein traileurrak ibiltzen dira errepide estu horretan, bizilagunek jakinarazi dutenez. Auzoa zeharkatzen duen errepidea

Mallabiko eta Ermuko industrialdeetara heltzen da, eta N-364 errepidetik baino azkarrago heltzen da bertara. Bizilagunek ahoz aho zabandu zuten gertatzen zaiena, eta, azaldu zuten, abenduan jaitsi egin zen zirkulazioa. "Baina altua da oraindik", gaineratu zuten. Goita auzoko German Landak esan zuenez, "autoek errepidean hartzen duten abiadura ere ez da behar den modukoa". Eta abiadura handiaren arriskuak ere aipatu zituen Landak: "Behin, auto batek nire etxe inguruko horma bat jo zuen".



Hiper Eroski Abadiñon erosteko modu berri bat

EROSKI club

kreditu-txartel
berria

EROSKI Abadiño
hipermerkatu berria
Azoka kutsuko hipermerkatua

EROSKI
Abadiño zurekin





'Jantzari' dokumentala aurkeztu dute Azokan

Azoka - IURRETA-DURANGO

> **DOKUMENTALA.** Dantza tradizionalan, aldaketa handiak gertatu dira genero ikuspututik azken urteetan. Iurretaren kasuan, 2018an, neska-mutilez osaturiko ezpatadantzari talde parekide batek debutatu zuen Iurretako plazan lehenengoz, San Migel egunean. Tradizio handiko plaza horretan emakume bat ezpatadantzari jantzita dantzan ikusteak balio sinboliko handia izan zuen genero ikuspuntutik. Hari horri tiraka, tradizioaren eta generoaren inguruko dokumentala grabatzen dabilta Iurretan. Iurretako Mikel Deuna dantza taldea, Bideografik ekoiztetxea eta ANBOTO dira elkarlanean proiektua garatzen dabiltzanak. "Hasieran, dantzariarik zaharrenei elkarriketak grabatzea zen asmoa. Bideografikeoekin berba egin genuen eta ikus-entzunezko txukun bat egin genezakeela konturatu ginen. ANBOTOkoekin berba egin eta euren ere gustatu zitzaizen proiektua", azaldu zuen Unai Esturo Mikel Deuna dantza taldeko kideak.



Dominika Talde Feministaren urtemuga

Herririk herri - ZALDIBAR

> **URTEURRENA.** Urtebete pasatu da Zaldibarko Dominika Talde Feministak "borroka feminista" herri osora zabaltzeari ekin zionetik. Hori ospatzeko, egitarau bat diseinatu zuten abendurako, eta abenduaren 14an

egin zituzten ekitaldi guztiak. Triki-poteo feministak eman zion hasiera jaiari, 13:30ean, udal plazatik hasita. 15:00ean emakumeen bazkaria egin zuten, gaztetxean, eta jaiak segida izan zuen gero Leire Lazpita bakarlari zaldibartarraren emanaldiagaz. DJ Pakyk poteoa alaitu zuen, 19:00etan hasita, eta jaiak 23:00etan amaitu zen, gaztetxean, bingo musikatuagaz eta karaokeagaz.



N-634 errepidea itxura berria hartuta

Herririk herri - IURRETA

> **ERREPIDEAK.** N-634 errepide nagusiak zeharkale itxura hartu zuen abenduan, lanak amaitzeko hilabete eskas faltan. Maiatzean hasi zituzten lanak eta 1.557.000 euroko inbertsioa eskatu dute. Iurretako Udalak 922.505 euro ipini zituen, eta Bizkaiko Aldundiak 634.460 euro. Biribilgune bi, bidegorria, zebra-bideak eta semaforoak ipiniko dituzte.



Euskararen Kriseilua dinamika Berrizen

Herririk herri - BERRIZ

> **EUSKARA.** Euskararen Kriseilua martxan ipini zuten Berrizen, eta 40 bat familiek erantzun zioten udaleko Euskara Zerbitzuak eta Learreta-Markina eskolak elkarlanean abiatutako ekimenari. Egitasmoak haurren hizkuntza, euskara, suaren sinbologiagaz jolastuz zaintzea eta umeez hizkuntzaren gaineko ardura hartzea izan zuen helburu. Azaro hasieran ekin zioten ekimenari, eta Lehen Hezkuntzako ikasleek eta euren familiek parte hartu zuten. Ekimenak abenduaren 3ra arte iraun zuen, Euskararen Nazioarteko Eguna arte. Abenduaren 4an, amaiera ekitaldi bat egin zuten, ekimenak iraun zuen bitartean familiek hartutako konpromisoekin.



Leche



BIZKAIA

Esnea

Baserria zure eskuetan



www.bizkaiaesnea.com



www.gualbiasesores.com

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, bere enpresako kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

GURE HEZKUNTZA PROIEKTUA

Ikaslea ardatz

Euskara eta Euskal kultura

Eleaniztasuna

Genero berdintasuna

Aniztasuna

Natura

BISITA GIDATUAK NOIZNAHI
Tel. 946200822
idazkaritza@kurutziagaikastola.eus
www.kurutziagaikastola.eus

- 0-18 urte bitarteko eskaintza
- Kirol eta aisialdi eskaintza zabala
- Jantokia: bertokoa, sasoikoa eta produktu ekologikoak